


MEMORIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

MEMORIA



2

0

2

2



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa - Agencia Vasca de Protección de Datos
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

MEMORIA 2022

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons da



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeke
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1	AURKEZPENA	4
1.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	6
1.1	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK.....	6
1.2	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO LEHENDAKARIA ETA IDAZKARIA	6
1.3	KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK	7
2	AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA.....	9
2.1	TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA	10
2.2	KONTSULTAK	10
2.3	IRIZPENAK	11
2.4	TXOSTENAK.....	16
2.5	BATZARRAK.....	16
3	KONTROL-JARDUERA	18
3.1	ESKUBIDEEN BABESA	19
3.2	SALAKETAK	25
3.3	ADMINISTRATIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK	35
3.4	EPAIAK	43
4	DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA.....	44
4.1	TOKI ADMINISTRATIOA	44
4.2	TRATAMENDU-ARDURADUNEK DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREKIN DUTEN LOTURA...45	
5	DBEB-KO LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA.....	47
6	BARNE KUDEAKETA.....	49
6.1	EGITURA ETA LANGILERIA	49
6.2	2022KO AURREKONTUA	51
6.3	BALIABIDE MATERIALAK	53
6.4	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA	54
6.5	KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA	54
7	AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK	56
7.1	AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	56
7.2	KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	56
8	BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK	58
8.1	LANGILERIAREN BANAKETARI BURUZKO DATUAK.....	58
8.2	AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK	59



1 AURKEZPENA

Urteko memoria egin eta onartzeko eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko arrazoa da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legeak Bulegoari eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 59. artikulua gainontzeko kontrol-agintaritzari ere ezartzen dien berariazko agindua betetzea. Era berean, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra xedatzen duenez, modu bat da Bulegoak 2022an egindako jardueren berri emateko modu sistematizatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei eta administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrenean ziurtatzeko pertsona guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarritzko eskubidea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egiten duen urteko memorian jasotzen dira Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jarduera garrantzitsuenak; eta lan hori guztia hainbat ataletan islatuta dago bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean zehar egindako jardura guztien segida.

Bulegoaren lehentasunezko zereginiei erreparatzen badiegu, aurten ere hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dugu parte, DBEOk aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz eta pribatutasuna euskal administrazio publikoen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrianari buruz.

2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), osorik aplikatu behar da; horrenbestez, arlo horretan autonomia-erkidegoko araudia egokitzea komenigarria da. Aurreko horrez gain, zera esan behar da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa egin da duela gutxi barne-ordenamendu juridikoan (2016/680 Zuzentaraua, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu, agintaritzak eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez), maiatzaren 26ko 7/ 2021 Lege Organikoaren, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoaren bidez.

Hori kontuan hartuta eta autonomia-erkidegoko araudia datuak babesteko Europako erregelamenduaren eta estatuan arlo horretan indarrean dauden legeen arabera egokitzeko, DBEBk datu pertsonalen babesari eta datuak babesteko euskal agintaritzari buruzko euskal legearen aurreproiektua edo proposamena prestatu du. Agiri hori oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzak 2022an datu pertsonalak babesteko legearen aurreproiektua onartu du eta, dagoeneko, Eusko Legebiltzarrari igorri zaio, dagozkion izapideak egiteko.



Azkenik, esan nahi dugu 2022ko memorian jasota dagoen Bulegoaren lan guztia, bai aholkularitza-eginkizuna betetzeko egindakoa bai kontrol-agintaritza den aldetik egindakoa, aurten ere, asmo garrantzitsu batekin egin dela, hau da, benetako oreka lortzea datuak babesteko oinarrizko eskubidea eta hori bezain garrantzitsuak diren beste eskubide batzuk egikaritzean; kontuan izan behar da, gainera, gurea teknologia-arloan gizarte aurreratua dela eta guztiz konektatuta dagoela, eta maiz jartzen duela atezuan eskubideen arteko oreka.

Espero dugu 2022ko memorian irakurleei eman diegun informazioa egokia izatea bakoitzak ikusteko zenbateraino lortu den -Bulegoa sortzeko legeak ezartzen duenaren arabera- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren helburuak gauzatzea, ikusteko noraino bete duen zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzea eta ea osorik egokitu zaien Europar Batasuneko xedapenek kontrol-agintaritzentzat ezartzen dituzten jarduera-esparruei.

2023ko ekaina
Margarita Uria Etxebarria
Zuzendaria





1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera, Datuak babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) Kontseilu Aholku-emailea DBEBko zuzendariari aholkua ematen dion kide anitzeko organoa da.

1.1 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK

2/2004 legearen 16.1 artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten Kontseilu Aholku-emailea. Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, lurralde historikoek, Euskadiko toki entitateek eta Euskal Herriko Unibertsitateek dute ordezkartza. Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan bi ordezkari dira, bata informatikaren esparrukoa eta bestea oinarritzko eskubideen eremukoa.

Urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren bidez onartutako Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuan ezarrita dagoenez, Kontseilu Aholku-emaileko kideek kargua euren izendapen-jardueran edo akordioan ezartzen duen aldi beteko dute; iraupenaren berariazko aipamena egin ezean, kargua denbora mugagabekoa izango dela ulertuko da.

Halaber, hiru Foru Aldundiek 2006ko urtarrilaren 11n egindako bileran aho batez irizpide gisa erabaki zuten, lurralde historikoen ordezkaria txandaka izendatu behar da hiru Foru Aldundien artean, hamazortzi hilabeteko epetan, alfabeto-hurrenkerari jarraituz (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

Ezarritako hurrenkerari jarraituz, Arabako Foru Aldundiak Aiala Olarte Hurtado andrea izendatu du lurralde historikoen ordezkari, 2022ko urtariletik 2023ko ekainera bitarteko eperako.

Horren arabera, Kontseilu Aholku-emaileko kideen artean 2022. urtean izendapena indarrean izan dutenak honako hauek izan dira:

- **Montserrat Auzmendi del Solar andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelaria.
- **Nieves Martínez de Antoñana Blanco andrea.** Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzako Araubide Juridikoaren zuzendaria.
- **Aiala Olarte Hurtado andrea.** Arabako Foru Aldundiko datuak babesteko ordezkaria, lurralde historikoen ordezkaria.
- **Aintzane Urquijo Sagredo andrea.** Santurtziko alkatea, Euskadiko toki erakundeen ordezkaria, EUDELe izendatua.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Komunikazioen Ingeniaritzako Katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari gisa.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Zuzenbide Prozesaleko Katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari gisa.

1.2 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO LEHENDAKARIA ETA IDAZKARIA

2/2004 Legearen 16.2 artikulua arabera, Kontseilu Aholku-emaileak berak onartuko ditu bere antolaketako eta funtzionamenduko arauak. Lehendakari-kargua eta idazkari-kargua egongo dira arau horietan ezarrita, eta horiek nola aukeratu edo



izendatu behar diren ere bai. Antolaketako eta Funtzionamenduko Arau horiek Kontseilu Aholku-emaileak onartu zituen 2006ko martxoaren 1ean egindako bileran.

Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikulua ezartzen duenez, Kontseilu Aholku-emaileko lehendakari kargua txandaka hautatuko da, urtebeteko epeetan, 2/2004 Legearen 16.1 artikuluan instituzioak aipatzen diren hurrenkeran. Irizpide horren arabera, 2022an Kontseilu Aholku-emaileko lehendakaria Eusko Jaurlaritzako ordezkari den Nieves Martínez de Antoñana Blanco andrea izan da.

Halaber, Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 6.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, Kontseilu Aholku-emaileko idazkaria DBEBko idazkari nagusia izango da. Horren arabera, 2022an Pedro Alberto González González jauna izan da Kontseilu Aholku-emaileko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Azkenik, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 7. artikuluko 8. apartatuan ezarritakoarekin bat, DBEBko zuzendari Margarita Uria Etxebarria andrea Kontseilu Aholku-emailearen bileretan egon da, hitzarekin, baina botorik gabe.

1.3 KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

7.2 artikulua ezartzen duenez, Kontseilu Aholku-emaileak 2013ko azaroaren 19an egindako bileran aldatutako idazkeraren arabera, Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi izango ditu urtean, bat sei hilabetearen behin. Horrekin bat etorriz, Kontseilu Aholku-emaileak honako bilera hauek egin zituen 2022an:

2022ko uztailaren 5eko bilera

Ohiko bileran honako gai nagusi hauek aztertu dira, besteak beste:

- DBEBren egoitzaren egoerari buruzko informazioa, 2023ko ekainean EJIEk Elizbarrutiko Seminarioarekin duen kontratua amaitzearen ondorioz.
- DBEBko langileen kudeaketari buruzko gaien informazioa, bereziki 20/2021 Legea, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen onartu ondoren.
- DBEBn enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko eskaintza egin beharra.
- DBEBko lanpostuak EAEko Kidego eta Eskalen Legera egokitu beharra.
- DBEBren lanpostu-zerrenda berrikusi beharra, DBEOren eta DBetaEDBLOren argitan.

2022ko abenduaren 2ko bilera

Ohiko bileran honako gai nagusi hauek aztertu dira, besteak beste:

- 2023eko aurrekontuen proiektua, Ekonomia eta Ogasun Sailari igorritakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotzeko.
- Jaurlaritzaren Kontseiluak Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren sortzeari buruzko legearen aurreproiektua onartzea, Eusko Legebiltzarrari igorri aurretik.
- Kontseilu Aholku-emailearen txostena, DBEBren egitura organikoa aldatzeko.
- Kontseilu Aholku-emailearen txostena, DBEBren lanpostu-zerrenda aldatzeko.



- Bi lanpostu lehiaketa publiko bidez betetzeko deialdia, finkapenerako salbuespenezko prozedura erabilia.



2 AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA

COVID-19ak arlo publikoan nahiz pribatuan mota guztietako jarduerak erregularitasunaz egitea eragotzi du denbora luzean eta, azkenik, 2022. urtean administrazio-zereginak normaltasunera itzuli dira.

Horren haritik, botere betearazleak nahiz botere legegileak beren eginkizunei ekin diete berriro eta, bide batez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduera ugaritu egin da aurreko ekitaldiekin alderatuta, bai irizpenak bai legezkotasun-txostenak egiteari dagokionez.

Zorrozki juridikoa den arloan, gure iritziz hainbat kontu nabarmendu behar da:

Alde batetik, 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa aplikatzearen ondorioz sortutako arazoak. Apirilaren 27ko 680/2016 Zuzentaraua barneko ordenamendura ekartzen duen Lege Organiko horren bidez, datuen babesaren arloko agintaritzen esku uzten da haien aplikazio-eremuaren barruko datu-tratamenduen gaineko kontrola. Horrek esan nahi du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumen, eginkizun eta botereen eremua handitu egiten dela.

Hala, lege-testu berri horren bitartez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere gain hartzen du, besteak beste, polizia-bideozaintzaren gaineko kontrola, zeinaren gaineko araudian gabezia handiak agerian baitaude segurtasun juridikoaren aldetik, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren arabera. Hori dela eta, hainbat bilera egin da datuen babesaren arloko agentzien artean, baita hainbat topaketa ere agintaritza judizialekin eta, areago, jardunaldi batzuk ere egin dira arazo horiek ahal den heinean arintzen saiatzeko.

Beste alde batetik, gizartean gero eta errotuago dagoen adimen artifizialak pertsonen eskubideak -zehatzago esatearren, haien pribatutasuna- ukitzen dituela ezin uka daiteke. Horrek guztiak behartuta, kontrol-agintaritzek aztertu behar dute zein erantzun eman ahal diren gaur egun indarrean dagoen araudiaren bidez, adimen artifizialari buruzko arau harmonizatuak ezartzeko eta Europar Batasunaren zenbait legegintza-egintza aldatzeko, Europako Batzordearen eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamena hezurramitzen den bitartean. Horri dagokionez, gogoan izan behar da teknologia horrek datu-kategoria bereziak ukitzen dituela, adibidez datu biometrikoak aurpegi-ezagutzako sistemak barnean dauzkaten sistemetan.

Azkenik, Europako Erregelamendua eta Datuak Babesteko Lege Organikoa indarrean jarri ostean sortutako arau-esparru berriak behartuta, legegintza aldetik arreta jarri da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren araubide juridikoan. Alde horretatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa 2022an bereziki lankidetzan aritu da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin (legegintza-ekimenaren sustatzaile baita Segurtasun Saila), Datu pertsonalak babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektua prestatzeko. 2022ko abenduaren 21ean testu hori lege-proiektu gisa aurkeztu zen jendaurrean eta, gaur egun, legebiltzarreko izapideen mende dago.



Zalantzarik gabe, gai horiek guztiek sekulako garrantzia dute. Dena dela, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) eta DPBEDBLOren babespean egindako datu pertsonalen tratamendu batzuei eta besteei buruz egin dizkioten kontsulta guztiak ebazten jarraitu du Bulegoak 2022an. Datuen komunikazioetan tratamendua legitimatzeko oinarririk dagoen ala ez izan da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan gehienetan jaso den kontsulta. Gainera, nabarmentzekoa da urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 28.2 artikulua aplikatzeari buruz Datuak Babesteko Euskal Bulegoak emandako irizpena, prozedurak izapidetzerakoan garrantzia baitu. Hain zuzen ere, artikulua horren bidez onartzen da pertsonak ez daudela beharturik jada diharduen administrazioaren esku dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek eginak direnak ekartzera.

2.1 TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta administrazio publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den instituzioa izan nahi du; horretarako, hainbat komunikazio-kanal jarri ditu horien guztien esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea uki dezakeen edozein gairen gainean galdetzeko.

Bulegoak 2022an bere komunikazio-kanal guztiak irekita eduki ditu eta ehunka aholkularitza-eskabide artatu ditu, funtsean telefono bidez eta bide telematikoak erabiliz.

2022an sarritan galderak egin dira funtzionarioen lanpostuak betetzeko eta funtzionarioak hautatzeko prozesuak kudeatzean datu pertsonalak argitaratzeari buruz, gurasoak banantzen edo dibortziazten direnean adingabeen errolda-datuak eskatzeari buruz, bideozaintzarako gailuak laneko segurtasunerako edo kontrolerako instalatzeko baldintzei buruz, eta historia klinikora irispidea izatearekin eta irispide hori kontrolatzearekin lotutako auziei buruz. Alde horretatik, esan daiteke Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zenetik herritarrek etengabe erakutsi dutela osasunari buruzko datuen tratamenduari buruzko kezka.

Telefonoz, zuzenean eta bide telematikoak erabiliz arreta emateari esker, halaber, egiaztatu da datuak babesteko ordezkariak zeregin garrantzitsua betetzen dutela oinarrizko eskubidearen ezagutzan, eta haien lana oso lagungarria dela pertsonen eskubideak hobeto babesteko.

2.2 KONTSULTAK

DBEBk irizpen bidez ebazten ditu datuen babesari buruz jasotzen dituen galderarik konplexuenak. Bulegoak aholkularitza eginkizuna burutzen du otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua betetze aldera, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:


- kontsultaren gaiak 2/2004 legearen aplikazio-eremuan dauden administrazio eta instituzio publikoen ardurapeko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa izan behar du.



- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2022an udalek eta foru-aldundiek egin zituzten kontsulta gehienak, eta haien atzetik EAEko Administrazio Orokorrak.

Aurreko urteetan bezala, egindako kontsulten artean bereziki aipagarriak izan dira berriro ere administrazio publikoek eskatuta egindako datu-komunikazioei nahiz administrazio



publikoek beraiek hirugarrenei egindako datu-komunikazioei buruzkoak. Kasu horietako gehienetan, funtsezko auzia da zehaztea interes publikorik edo botere publikoen jardunik dagoen ala ez (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e artikuluan agertzen den hori baita administrazio publikoaren legitimazio-oinarririk ohikoena) edo antzematea hirugarren batek aipatu duen interes legitimoa dagoen ala ez. Azken kasu horretan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikuluan legitimazio-oinarri gisa aitortuta dagoen horretan, interes nabarmena haztatzeari ekin behar zaio, interes hori informazioaren eskatzaileak aipatutako interesa edo, beste kasuren batean, ukituen datuak babestea dela ere.

Kasu gehienetan, tratamendurako legitimazio-oinarririk dagoen ala ez ebazteko zein irizpide duen azaltzeko eskatzen zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari; dena dela, instituzio horrek beti esaten duenez, administrazio publikoek egindako datu pertsonalen tratamenduetan zilegitasunaren printzipioa errespetatu behar da baina, horrez gain, Erregelamenduaren 5. artikuluan aldarrikatzen diren gainerako printzipioak ere bai. Datuen tratamenduaren arduradunak legitimazio-oinarri bat eduki behar du, baina horrez gain, adierazi den helburua errespetatu behar du, datuak biltzen diren kasuan informazioa eman behar du, tratamendua egokiak eta beharrezkoak diren datuetara mugatu behar du, informazioaren zehaztasuna bermatu behar du, kontserbazio-epea mugatu behar du eta datuen osotasuna eta konfidentziasuna bermatzeko neurriak hartu behar ditu.

2.3 IRIZPENAK

Irizpen adierazgarrienak eskuragarri daude Bulegoaren web-orrian (www.avpd.eus).

- **Udaltzaingoak egunero herritarren segurtasuneko zinegotziari eta udalerriko alkateari bidaltzen dizkien gorabeheretan filiazio-datuak jartzea zilegia den (CN21-012)**

Galdetzen da ea zilegia den udaltzaingoak egunero herritarren segurtasuneko zinegotziari eta udalerriko alkateari bidaltzen dizkien gorabeheretan filiazio-datuak jartzea. Ezarrita dagoen lege-esparruaren arabera, irispidea izateko baimena eman behar da, eta kasu bakoitzean zer helburu lortu nahi den, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua egin beharko da. Hala, pertsonen



pribatutasunean bidezkoa ez den moduan esku sartzea eragotziko du, minimizazioaren printzipioarekin bat eginez.

- **Udal lizentziara irispidea izatea (CN21-013)**

Hirigintzaren esparruan ekintza publikoaren indarra aldarrikatu denez, herritarrei ere interes legitimoa eta zuzena dutela aitortzen zaie legea betetzen dela kontrolatu ahal izateko, eta horixe gertatzen da obren lizentzia gainbegiratu nahi dutenean. Udalak agiri horien edukira irispidea izateko baimena eman behar du, eta kasu bakoitzean zer helburu lortu nahi den, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua egin beharko du. Hala, pertsonen pribatutasunean bidezkoa ez den moduan esku sartzea eragotziko du, minimizazioaren printzipioarekin bat eginez.

- **Prokuradoreen elkargoak demanden erantzunen zerrendako datuak irispidean izatea zilegia den (CN22-001)**

Prokuradoreen elkargoak galdetzen du ea irispidea izan ahal duen demanden erantzunen zerrendetan ageri diren datuetara (halakoak dira alderdien datuak, alderdiei laguntzen dieten profesionalen datuak, prozedura-zenbakia eta abar) elkargokideen kuotak kobratzeko, datuak babesteko araudia urratu gabe, Vitoria-Gasteizko barruti judizialeko epaitegi dekanok araudia urratzen dela alegatzen baitu.

Izapide-idazkien zerrendetan jasotzen diren datuak -halakoak baitira demandaren erantzunean ageri direnak- datu jurisdikzionalak dira. Kontuan hartuta Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalei buruzko Lege Organikoaren (DPBEDBLO) 2. artikuluan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 20. kontuan hartuzkoan eta maiatzaren 26ko 7/ 2021 Lege Organikoaren, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoaren 2. artikuluan xedatuta dagoena eta Botere Judizialaren Lege Organikoan -zehazki I Bis kapituluaren, datu pertsonalak Justizia Administrazioaren esparruan babesteari buruzkoan-ezarrita dagoena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ebatzi behar du egin nahi den datu-tratamenduaren legitimazioari buruz.

- **Hildako pertsona baten ekonomia- eta ondare-egoeraren informazioa irispidean izatea (pertsona hori foru-egoitza bateko plaza baten eskatzaile den beste pertsona baten familia-unitateko kide zen) (CN22-002)**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak kontsulta bat planteatu zuen, hildako pertsona baten ekonomia- eta ondare-datuak irispidean izateari buruz. Hain zuzen ere, pertsona hori egoitza bateko plaza baten eskatzaile zen beste pertsona baten familia-unitateko kide zen.

DBEO ez zaio aplikatzen hildako pertsonen datu pertsonalen babesari. Hala ezartzen du DBEOk 27. kontuan hartuzkoan. DPBEDBLOk 2.2 b) artikuluan ezartzen duenez, era berean, ez zaie aplikatuko hildako pertsonen datuen tratamenduei, 3. artikulua xedatutakoa gorabehera.



DPBEDBLOren 3. artikulua hainbat gauza arautzen du, eta horietako bat da hilda dagoen pertsona baten datu pertsonaletarako irispidea. Hain zuzen ere, hilarekin familia-lotura edo izatezkoa dutenek, edo haren jaraunsle direnek tratamenduaren arduradunarengana edo eragilearengana jo ahalko dute hilaren datu pertsonaletara irispidea izateko, salbu eta hilak berariaz debekatu badu edo lege batek horrela xedatzen badu. Debeku horrek ez du eragingo jaraunsleek kausatzailearen ondare-datueta irispidea izateko eskubidean.

Hala, jaraunsleek edo kausatzailearen jaraunspenerako deituak direnek hildakoaren ondare-datueta irispidea izan ahalko dute. Kotsultari planteatzen zaigun kasuan, zehazki, foru-egoitzako plaza eskatzen duen alargunak hildako ezkontidearen ondare-datueta irispidea izan ahalko du, testamentu bidezko edo testamenturik gabeko oinordekoa -zein den bidezkoa- eta, nolana ere, seniparteduna den aldetik, ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa (47. artikulua eta hurrengoak) ezarrita dagoenaren arabera.

Martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzkoaren 94.1 artikulua xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Sailak zerga-ordainketan eragina duten datuak eskura dituenen, datu horiek isilpekoak dira, artikulua horretan bertan ezarritako kasuetan izan ezik. Kasu horietako bat da administrazio publikoei lagatzea edo jakinaraztea, administrazio publiko horiei euren eginkizunak betetzen laguntzeko, baldin eta zergapekoek horretarako baimena eman badute.

- **Ur partzuergo bati datuak lagatzea (CN22-005)**

Gaur egungo zerbitzu-emaileak bigarren mailako sareko edo behe-hornidurako zerbitzu publikoa kudeatzeko bildutako erabiltzaileen datuak lagatzea ur-partzuergoari (CN22-005).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa da legitimazio-oinarria, udalerriek beren kasa edo udalen artean elkartzeko beste formula egoki batzuk erabilita -adibidez, partzuergoak- erabiltzaileen datuen tratamenduak egin ditzaten eta, hala, eskumen propioak egikaritu ditzaten uraren ziklo integralean zerbitzuak antolatzeke, kudeatzeko, emateko eta kontrolatzeko, barnean dela uraren behe-hornidura.

Lege-xedapen horrek berak legitimitatea ematen du zerbitzuen gaur egungo kudeatzaileak administrazio batzarretako bigarren mailako sareko ur-hornidurako zerbitzuei batzen zaizkion erabiltzaileen datuak ur-partzuergoari laga diezazkion, zerbitzugintzarako kontratuak kudeatu ahal izateke, erabiltzaile bakoitzari aurretiaz adostasuna eskatu gabe.

Hala eta guztiz ere, tratamendu horretan, partzuergoak DBEOari jasotzen diren gainerako printzipioak bete beharko ditu.

- **Feminizidioen gaineko azterlanaren proiektua (CN22-006)**



Feminizidioen gaineko azterlanaren proiektua egiteaz arduratzen den lantaldeak hildako pertsonen datuak tratatu ahalko ditu, ez daudelako datuak babesteko araudiaren mendean; hala ere, baliteke tratamendu horrek beste eskubide batzuk arriskuan jartzea, esate baterako ohorerako, intimitaterako edo norberaren irudirako eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan onartzen den hori. Gainerako kasuetan, ukitutako pertsonen adostasuna eduki beharko du edo, bestela, zerikusia duten instituzioek jatorrian anonimizatu beharko dituzte lantaldeak geroago aztertu beharko dituen datu pertsonalak.

- **Kontratazio-espeditente batean tratamendu-eragiketek datuen babesaren gainean duten eragina ebaluatu beharra, zehazki datuak administrazio-baldintzen agirietan sartzeari dagokionez (CN22-007)**

Administrazio publiko batek aplikazio informatiko bat kontratatzeak ezinbestean dakar diseinutik abiatutako pribatutasunaren printzipioa zaindu behar izatea, dela datuen minimizazioaren, helburua mugatzearen eta konfidentzialtasun eta osotasunaren printzipioak betetzen direla bermatzeko, dela erantzukizun proaktiboaren printzipioa betetzen dela bermatzeko, azken horren arabera tratamenduaren arduradunaren erantzukizuna baita printzipioak betetzea eta, halaber, betetzen direla frogatzeko moduan egotea.

- **Administrazio publikoen esku dauden dokumentuak ez aurkezteko eskubidea eta eskubide horrek datu pertsonalen babesean duen eragina (CN22-009)**

39/2015 Legearen 28. artikulua administrazio publikoei jarduteko betebeharra ezartzen die, interesdunek administrazio publikoen esku dauden dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea bete dadin. Administrazioek beraiek eskuratu beharko dituzte dokumentu horiek, salbu eta interesdunak adierazten badu eskubide hori ez egikaritzeko borondatea duela eta eskubide horren aurka egiten duela; hala gertatuz gero, interesdunak berak ekarri beharko ditu prozeduran eskatzen diren dokumentuak eta, hala egin ezean, prozeduratik baztertuta geratuko da; gainera, aurretiaz interesdunari horren berri eman beharko zaio.

Nolanahi ere, Administrazioek bitartekoren bat jarri beharko dute, interesdunen esku, aurka egiteko aukera hori erabili ahal izan dezaten.

- **Udal funtzionario baten erretiro-espeditente osora irispidea izatea (CN22-010)**

Irizpenean aztertzen da ea posiblea den bateragarri egitea datuak babesteko oinarritzeko eskubidea eta sindikatu-askatasunaren egikaritzapena. Sindikatu batek garrantzi publikoko informazioa eskatu zuen udal funtzionario baten erretiro-espeditenteari buruz. Lan-arloko araudiak sindikatu-ordezkariei esleitzen dien informazio-ahalari esker, eskatutako informaziora irispidea izan dezakete ordezkar horiek, baina eskatzaileak berezko duen kontrol-xedearekin. Dena dela, datuak minimizatzeko printzipioa ezinbestean bete behar da, halako moduz non tratatutako datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera.



- **Udal osoko bilkuraren bileretan hitza hartzen duen jendea grabatzea eta grabatutakoa hedatzea (CN22-011)**

TAOLek eta ETELe ez dute legitimaziorik ematen osoko bilkuraren bilerara joaten diren herritarren hitzaldiak grabatzeko eta hedatzeko. Haien datu pertsonalen tratamendua egin ahal izateko, haiek adostasuna eman behar dute ezinbestean.

Korporazioak erabiltzen badu -herritarren ohorea eta intimitatea babesteko asmoz- eztabaida eta bozketa sekretuak izatea ahalbidetzen duen ahala, halakoetan ere osoko bilkuraren bilerak grabatzeko gaikuntzak ez du balioko.

- **Sindikatu-ordezkariek irispidea izatea udaltzaingoko agenteek egindako aparteko orduei buruzko informaziora (CN22-012)**

Sindikatuak legitimazioa dute informazioa jasotzeko lanaldiei buruz eta udaltzaingoko agenteei lanalditik kanpo esleitutako aparteko orduei buruz, udalak ordu horiek esleitzean egiten duen jarduera fiskalizatzeko eta kontrolatzeko, sindikatuak ahalmen hori baitute.

Hala ere, eginkizun hori betetzean, Erregelamendu Orokorrean aldarrikatzen diren gainerako printzipioak bete beharko dituzte. Zehazki, datuak minimizatzeari buruzko printzipioaz, 5.1.c) artikuluan jasotzen den horretaz ari gara. Artikulu horren arabera, datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Horregatik, sindikatu-eginkizuna betetze aldera, ahal dela datuen gehiegizko tratamendua eragotziko dute. Gainera, proportzionaltasunez jokatu beharko dute, alde batetik kontuan hartuta zein helburu lortu nahi den, hau da, udalaren jarduera kontrolatzea, eta bestetik udaltzaingoko agenteen datuen babesetik eratorritako mugak zein diren. Hala, eskatutako informazioa bidali ahalko dio udalak sindikatuari, banakatuta, baina agente bakoitza identifikatzea eragotziko du eta, horretarako, seudonimizazio-neurriak aplikatuko ditu.

Gerora, sindikatuak lortutako datuen tratamendua egiten badu, datuak babesteko araudia osorik bete beharko du.

- **Eutanasiaren arloko Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordeak historia klinikora irispidea izatea (CN22-013)**

Hiltzeko laguntzaren eskaria hasieran ukatzen denean edo laguntza hori emateko eskakizunak betetzen diren egiaztatzeaz arduratzen diren profesionalen artean (medikuen eta legelarien artean) desadostasunak daudenean, Eutanasiaren arloko Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordea izeneko organoak hartzen du erabakia. Nolabait esatearren bigarren instantzia baten eginkizuna betetzen dutenez, batzordeko kideek, osasun-arloko profesionalak izan zein ez, egiaztatzaileek daukaten informazio berberera irispidea izateko eskubidea dute; dena dela, baliteke batzordeko kide batzuek eta besteek irispidea izateko bide diferenteak baliatzea, bakoitzaren lanbide-espezialitatearen arabera.

Kasu honetan, historia klinikora irispidea izateko gaikuntza ez du ematen osasun-laguntzak, baizik eta hiltzeko laguntza emateko eskubidea arautzen duen legeak berak. Hain zuzen ere, lege horren azalpen-zatian azaltzen denez, funtsezko



printzipio batzuekin bat etorrira eta bat-etortze horretan oinarrituta legeztatzen eta arautzen da eutanasia; printzipio horiek pertsonen eskubideen oinarri dira. Alde batetik, bizitzeko eta osotasun fisikorako eta moralerako oinarritzko eskubideak dira eta, bestetik, Konstituzioak babesten dituen ondasunak, hala nola duintasuna, askatasuna eta borondatearen autonomia.

- **Hirugarrenen datuak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari komunikatzea (CN22-014)**

Foru Aldundiko nekazaritza sailak legitimazioa dauka ustategiaren koadernoetan agertzen diren hirugarrenen datu pertsonalak eskatzeko, nekazaritzako lehen mailako ekoizpenaren higiearen arloko ikuskapen-ahala egikaritzeko behar-beharrezkoak diren neurrian.

2.4 TXOSTENAK

2022an hamabi legezketasun-txosten egin ziren:

- EAEko aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardura antolatze eta gainbegiratzeko Dekretuaren proiektua.
- Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua.
- EAEko higiezin-kredituen bitartekarien eta higiezin mailegu-emateen erregistroa arautzeko Dekretuaren proiektua.
- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua.
- Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen aurreproiektua.
- Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua.
- Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko Dekretuaren proiektua.
- 2023-2026 Euskal Estatistika Planari eta EAEko Estatistikari buruzko Legea aldatzeko buruzko Legearen aurreproiektua.
- Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Legearen aurreproiektua.
- Transexualen dokumentazio administratiboari buruzko Dekretuaren proiektua.
- Euskadiko onarpen-zerbitzuko langileen erregistroaren agindu-proiektua.
- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua.

2.5 BATZARRAK

2022. urtean berriro ekin zitzaion batzar presentzialak egiteari, COVIDa zela-eta halako bilerak etenda egon ostean.



Zenbait bilera egin ziren toki-administrazioako datuak babesteko ordezkariekin eta, halaber, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko arlo juridikoko kide batzuekin ere, artean Datu pertsonalak babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektu zena aztertzeko.

Bideokonferentzia bidez datuen babesaren arloko gainerako kontrol-agintaritzekin ere bilerak egin ziren.





3 KONTROL-JARDUERA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol jarduera burutzeko, datuak babesteko legeria bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio eta instituzio publikoek legeria hori behar bezala aplikatzen dutela ere kontrolatzen du eta, hala badagokio, ahal zuzentzaileak baliatzen ditu.

Gainera, irispidea izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta abarreko eskariak egin arren arduradunak behar bezala jaramon egiten ez badie eskubideak egikaritzeko eskariei, Bulegoak eskubideak babesteko erreklamazioetan ere esku hartzen du.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-agintaritzak guztiei, adibidez, ikerketa-ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, ezar daitezkeen arau-hausteak, zehapenak edo jarduera zuzentzaileak arautzen ditu.

Bestalde, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. titulua zehapen-araubideari buruzkoa da, eta bertan xedatzen da arau-hausteak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezkeela, preskripzio-epeak zehaztearen ondorioetarako.

3/2018 Legeak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak bezala, ez du zehapen ekonomikorik ezartzen administrazio publikoentzat; dena dela, administrazio horiek jokabide hori eteteko edo arau-haustearen ondorioak zuzentzeko hartu beharreko neurriak ezarriko dituzte. Bestalde, datuak babesteko agintaritzak diziplinako jarduketak abiarazi ahal dituela aurreikusten da, horretarako adina zantzu egonez gero.

Baina horrez gain —eta legeak dakarren alderdi berria da hau—, arau-hausteak agintariei eta zuzendariei egoztekoak badira, eta egiaztatzen bada badela tratamenduari begira egindako txosten tekniko edo gomendiorik eta halakoei ez zaiela behar bezala jaramon egin, kargudun arduradunaren izena daraman ohartarazpen bat sartuko da ebazpen zehatzailean, eta Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ohartarazten du herritarrek tresnak behar dituztela benetan bakoitzak kontrolatu ahal izateko bere informazio pertsonala eta, horretarako, datuetarako irispiderako eskubideari, datuak zuzentzekoari, ezereztekoari eta tratamenduaren aurka egitekoari beste berri bi gehitu dizkie: tratamendua mugatzeko eskubidea eta datuak transferitzeko eskubidea.

Horrekin lotuta, ikusten denez, Bulegoak jaso dituen babes-eskariak agerian uzten dute herritarrak kezkatuta daudela norberaren datuen gaineko kontrola dela eta. Ez da ahaztu behar oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia hain zuzen ere informazio pertsonalaren gaineko kontrolean datzala; esparru publikoan, irispidea izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta ahaztua izateko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak egikaritzuz gauzatzen da kontrol hori.

Erreklamazioa jaso duten Administrazioek laguntza egokia eman zuten, orokorrean; hala ere, batzuetan, Bulegoak behin eta berriz eskatu behar izan zuen informazioa, baita ohartarazi ere ezen, Datuak Babesteko Agintaritzari ez laguntzea jokabide zehagarria dela, DBEOren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera.



3.1 ESKUBIDEEN BABESA

2022an, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako babes-erreklamazioetako asko ezetsi egin ziren, administrazioek behar bezala bete zituztelako erreklamatzailerak egikaritutako eskubideak.

Dena dela, oraindik ere kasu batzuetan eskubide horiek lege ezarritako epetik kanpo betetzen dira. Batzuetan, tratamenduaren arduradunak herritarra Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo duela jakiten duenean ematen da arreta hori. Alde horretatik, berriro ere esan behar da eskubidea epez kanpo betetzea oinarritzko eskubidea urratzea dela. Herritarrek egindako eskubide-eskariak erantzuna emateko egin beharra bete ere egiten ez denean, alferrikakoa da digitalizazioaz, administrazio elektronikoaz edo adimen artifizialaz mintzatzea. Administrazio-isiltasuna ez da besterik gabe administrazio-jardunbide desegoki bat, urraketa bat delako, hau da, batetik, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak agintzen duen «ebatzi beharra» urratzen duelako eta, bestetik, datuen babesari buruzko araudia ere urratzen duelako.

Eskubideak egikaritzeari dagokionez, argi eta garbi nagusi izan ziren datu pertsonaletara iristeko eta haiek ezerezteko eskariak, funtsean historia klinikoari eta polizia-fitxategietan dauden datuei buruzko eskariak. Bi sektore horiek zati handi bat hartzen dute Bulegoak eskubideen babes-eskariak ebatzen egin beharreko zereginen artean; izan ere, pertsonen pribatutasuna sektore horietan ukitzen da batez ere.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritako gainerako eskubideak egikaritzeari buruzko arazoak oso-oso gutxitan agertu ziren.

Hona 2022an ebatzitako babes-eskariak.

3.1.1 Irispide-eskubidea

- **Lan-espediente pertsonalera irispidea izatea (ET21-013)**

Erreklamatzailerak DBEBra jo zuen, Donostiako Udalean bere espediente pertsonalera irispidea izateko eskari bat aurkeztu ostean, ez baitzuen erantzunik jaso araudian ezarritako epean.

Donostiako Udalak onartu zuen eskariari ez zitzaiola erantzun, arrazoi ezezagunak zirela-eta; adierazi zuenez, informazio guztia gehiago berandutu gabe helarazi behar zioten erreklamatzailerari. Beraz, erreklamazioa baiestea ebatzi zen.

Errekerimendua jaso arren, Udalak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.

- **Legitimaziorik izan ez arren erreklamatzaileraren historia klinikora irispidea izan duten osasun-arloko profesionalen datuetara irispidea izatea (ET21-036)**

Osakidetza bete egin zuen erreklamatzailerari dagozkion datu pertsonaletara nahiz DBEOren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziora irispidea izateko eskubidea; horrenbestez, babes-eskaria ezetsi zen. Irispidea izateko eskubidearen



edukiaren barruan ez da jasotzen tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen nortasuna, erreklamatzaileraren datu pertsonaletarako irispidea izan duten horiena, alegia.

Orobat ebatzi zen DBEOren arabera datu pertsonalen tratamendurako oinarrietako bat interes legitimoa dela. Hala eta guztiz ere, agintaritzek ezin dute interes legitimo hori aldarrikatu beren eginkizunen barruan datu pertsonalen tratamendua egiteko, baina hirugarren batek bai, aldarrika dezake interes hori, eta agintaritzek ulertu legitimazio-oinarria dela babes berezirik behar ez duten datu pertsonalen tratamendua egiteko.

Nolanahi ere, interes legitimo baten babespean eskatutako datu-komunikazioari buruzko ebazpena tratamenduaren arduradunak eman beharko du, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta. Interes legitimo hori arduradunak aintzat hartu ahal du, baldin eta aldarrikatutako interes legitimoak lehentasuna badu ukituen eskubideen aurretik, interes horren eta eskubideen arteko haztapena egin ondoren.

Datu-kategoria berezien tratamenduak babesa izan beharko du DBEOren 9.2 artikuluan azaltzen diren oinarri juridikoetako batean, baina horien artean ez da agertzen interes legitimoa.

- **Historia klinikora irispidea izatea (ET22-005)**

Osakidetza ez zuen bete demandatzailearen ordezkariak historia klinikora irispidea izateko egindako eskaria; alegatu zuenez, ez ziren aurkeztu lege-ordezkaritzari dagozkion agiri guztiak.

Baiesteko ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez enteari errekerimendua egin zitzaion, eskatutako historia klinikoa ordezkariari entrega ziezaion, ordezkaritza behar bezala egiaztatuta zegoelako.

- **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan dagoen historia klinikora irispidea izan duten medikuen identifikaziora irispidea izatea (ET22-006)**

Erreklamazioa ezetsi zen, Administrazioak bete egin zuelako erreklamatzaileraren eskubidea, hain zuzen ere datuetara irispidea izatekoa. Espedientean zegoen informazioaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak erreklamatzaileraren esku jarri zuen bere historia klinikorako irispidea. Erreklamatzaila gauza bakar batean ez zegoen ados: ez zitzaion eman bere datu pertsonaletara irispidea izan zuten enplegatuen nortasunaren berri, eta horregatik jarri zuen erreklamazioa Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

DBEOn araututako irispide-eskubidea egikaritzean, interesdunak irispidea izan ahal du berari dagozkion datu pertsonaletara eta, hori ez ezik, DBEOren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziora ere. Hala ere, irispidea izateko eskubidearen edukiaren barruan ez da jasotzen tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzaileraren datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasuna. Horregatik, eskubideak babesteko egindako eskaria ezetsi zen, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak irispide-eskubidea behar bezala bete zuelako.

Hala ere, DBEOren arabera datu pertsonalen tratamendurako oinarrietako bat interes legitimoa da. Hori kontuan izanik ere, agintaritzek ezin dute interes legitimo hori



aldarrikatu beren eginkizunen barruan datu pertsonalen tratamendua egiteko, baina hirugarren batek bai, aldarrika dezake interes hori, eta agintaritzek ulertu legitimazio-oinarria dela babes berezirik behar ez duten datu pertsonalen tratamendua egiteko.

Nolanahi ere, interes legítimo baten babespean eskatutako datu-komunikazioari buruzko ebazpena tratamenduaren arduradunak eman beharko du, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta. Interes legítimo hori arduradunak aintzat hartu ahal du, baldin eta aldarrikatutako interes legítimoak lehentasuna badu ukituen eskubideen aurretik, interes horren eta eskubideen arteko haztapena egin ondoren.

Datu-kategoria berezien tratamenduak babesak izan beharko du DBEOren 9.2 artikuluan azaltzen diren oinarri juridikoetako batean, baina horien artean ez da agertzen interes legítimoak.

- **Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen agirietara irispidea izatea (ET22-007 eta ET22-008)**

Erreklamatzailleek —biek ala biek zuten ordezkariaren bitartez— ziotenez, GOFEn agiri-eskaria aurkeztu zuten, baina eskari hori ez zen behar bezala artatu.

Hala ere, eskatzaileek egikaritu nahi zuten eskubidea ez zen datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea -hala izan balitz, DBEBk babestuko luke-. Aitzitik, bestelako eskubide bat zen, administrazio-espeditate baten parte diren agirietara irispidea izatea, alegia, eta hori 39/2015 Legean arautzen da. Horrenbestez, bi erreklamazioak ezetsi ziren.

- **Ospitale bateko gela baten irudien grabazioetara irispidea izatea (ET22-009)**

Ospitale bateko gela batean zeuden kamerek hartutako grabazioetara irispidea izateko eskatu zen. Erreklamazioa ezetsi zen, erreklamaturako administrazioak erreklamatzaillearen irispide-eskubidea bete egin zuelako; izan ere, eskaria lege ezarritako hilabeteko epearen barruan ebatzi eta jakinarazi zen. Kasu honetan ezinezkoa zen uzia betetzea, pazienteen geletan ez dagoelako kamerarik eta, guztientzako eremuetan dauden kamerek, berriz, ez dutelako uzten irudiak grabatzen; halako kamerak unean uneko ikuskaldirako erabiltzen dira.

- **Ordezkaritza jakiteko irispidea, PFEZaren aitorpenerako (ET22-014)**

Erreklamatzailleak zioenez, PFEZaren aitortzea egiteko bere ordezkariak zein entitateari eman zion jakin nahi zuen, eta horretarako irispide-eskubidea egikaritu zuen Arabako Foru Aldundian, baina hilabete igaro eta gero ez zuen erantzunik jaso.

Arabako Foru Aldundiak erreklamatzaileri eman zion eskatutako informazioa, baina DBEOren 12.3 artikulua eskatzen duen hilabeteko epea kanpo egin zuen. Erreklamatzailleak zerga-arloko foru araudiaren bidetik jo zezakeen informazioa lortzeko, baina datuak babesteko araudian jasotako irispide-eskubidea aipatu zuen, eta zerga-ondorioetarako bere ordezkariaren nortasuna jakiteko uzia irispide-



eskubide horren edukiaren osagai bat da; beraz, baiesteko ebazpena eman zen, eskubidea epez kanpo bete zelako.

- **Donostiako Udalaren agirietara irispidea izateko eskubidea (ET22-015)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, Donostiako Udalak erreklamatzaillearen irispide-eskubidea bete zuelako Bulegoak eskubideen babes-prozedura izapidetu ostean.

Bulegoak bere ebazpenean gogora ekarri zuenez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15.etik 22. artikulura bitartekoetan ezarritako eskubideak hilabeteko epean bete behar dira, eta betebeharrak hori urratzea datu pertsonalen babesaren arloko arau-haustea izan daiteke.

- **Seme-alaba adingabeen datuetara irispidea izateko eskubidea (ET22-019)**

Erreklamatzailleak, legezko ordezkaria zen aldetik, bere seme-alaba adingabeen datu guztietara irispidea izateko eskatu zuen, datu horien artetik Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esku zeudenetara, alegia. Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi zen, adingabearen interes gorena nagusi zelako. Ezesteko ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zen administrazio-bidean, eta errekurtsio hori ere ezetsi zen.

3.1.2 Ezerezteko eskubidea

- **Udalaren web-orriko zerrenda bat ezabatzea (ET21-045)**

Kasu horretan, udalaren web-orrian oposizio batean onartutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu izanaren aurkako erreklamazioa aurkeztu zen, web bilaketa-tresna batean erreklamatzaillearen izen-abizenak bilatuz zerrenda hartara irispidea izatea baitzegoen. Hautaketa-prozedurak indarrean jarraitu arren, 2020ko ekaineko administrazio-ebazpen bat Interneten argitaratuta edukitzea ez zetorren bat datuak babesteko araudiarekin, ebazpen haren helburua beteta zegoelako eta aurkaratzeko epea amaituta zegoelako.

- **Polizia-datuak ezerezteko eskubidea (ET22-004)**

Herritar batek udal polizia-fitxategi batzuetan zeuden datuetara irispidea izateko eta gerora datu horiek ezerezteko eskatu zuen. Irungo Udalak berandu erantzun zuen, eta ezerezteko eskubidea ez zuen bete, ulertzen baitzuen eskariarekin batera frogagiriak aurkeztu behar zirela. Babes-eskaria baietsi zen, eta Udalari eskatu zitzaion datuak kontserbatzeko beharrezko aztertu ondoren datuak ezerez zitzala edo datuok ezerezteko uka zezala.



- **Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako datuak ezerezteko eskubidea (ET22-012)**

Erreklamazioa baietsi zen, Barakaldoko Udalak erreklamatzaillearen ezerezte-eskubidea Bulegoak eskubideen babes-prozedura izapidetzeari ekin ostean bete zuelako.

Bulegoak bere ebazpenean gogora ekarri zuenez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15.etik 22. artikulura bitartekoetan ezarritako eskubideak hilabeteko epean bete behar dira, eta betebeharrak hori urratzea datu pertsonalen babesaren arloko arau-haustea izan daiteke.

Barakaldoko Udalak eskubide horiek bermatzeko hartutako neurriak komunikatu zituen.

- **Historia klinikoa osorik ezerezte (ET22-013)**

Formalki baietsi zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa, erreklamatzailleak egikaritutako ezerezteko eskubidea epez kanpo bete zelako; hala ere, erreklamazioaren uziaren mamia ezetsi zen.

Erreklamatzailleak bere historia klinikoa osorik ezerezteko eskatu zuen: bizilekua beste autonomia-erkidego batera aldatu zuen eta, horregatik, bere ustez, bere historia klinikoa ezabatu behar zen. Bizilekua jatorrizkoa ez den beste autonomia-erkidego batera aldatze hutsak ez dakar, berez, aurreko historia klinikoa ezabatzeko eskubiderik; aitzitik, legean ezerezteko jasotzen diren baldintzak bete behar dira. Baldintza horietako bat honako hau da: azaroaren 14ko 41/2002 Legearen, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei buruzkoaren 17.1 artikuluan xedatzen denez, osasun-zentroek nahitaez gorde beharko dute dokumentazio klinikoa, hura modu egokian mantendu eta segurtasuna bermatzeko baldintzetan, kasu bakoitzari dagokion denboran zehar; dokumentazioa bost urtez gorde beharko da gutxienez, prozesu asistentzial bakoitzari alta ematen zaion egunetik kontatzen hasita. Beraz, historia klinikoa kontserbatu behar da informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko eta pazienteen intimitatea bermatzeko moduan eta baldintzetan; era berean, historia klinikoa kontserbatuz, pazienteen osasunari buruzko datuak behar bezala jakin ahalko dituzte haiek tratatu ahal dituzten medikuek. Azken horren haritik, historia klinikoko datuek norbanakoaren osasunarekin zerikusia dutenez eta datu horiek kontsultatzea osasun hori zaintzeko egokia denez, kasu bakoitzean egokia den denboran kontserbatu beharko dira, medikuen irizpideen arabera. Pazientearen etorkizuneko osasunari kalte egingo bazaio, ez da komenigarria izango haren datuak ezerezte eta, gainera, ezin dira ahaztu hirugarrenen beste interes legitimo batzuk, osasunaren arloan sarritan tartean daudenak, baita 41/2002 Legean eta osasunari buruzko araudian onartutako gainerako erabilerak ere.

3.1.3 Zuzentzeko eskubidea

- **Zuzenketa eta ezerezte (ET21-035)**

Zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak egikaritzeari buruz, Osakidetzaaren erantzuna izan zen erreklamatzailari azaltzea historia klinikoaren esanahia, helburua (osasun-



laguntza) eta araudia; horrez gain, azaldu zuenez, araudi horretan jarraibide zehatzak jasotzen dira, historia klinikoaren edukia kontserbatzeko eginbeharrari buruz. Erreklamatzailari ez zitzaion azaldu zergatik kontserbatuko zen historia klinikoaren zati hori, zehazki, etorkizunera begira osasun-laguntzaren arloan zeukan balioagatik; kontserbatzeko beharrezana zegoenik ere ez zitzaion azaldu, eta datu horiek mantentzea justifikatu ahal zuten osasun-arloko arrazoiak ere ez ziren azaldu.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez dauka eskumenik zehazteko ea datu mediko zehatz batzuk beharrezkoak diren pazienteari agian etorkizunean emango zaion laguntzarako; aldiz, eskumena dauka epaitzeko txostenen bat falta dela, historia klinikoaren zati hori kontserbatzeko beharrezana gutxieneko xehetasun batzuekin azalduko duen txosten bat, alegia.

Indar handiko arrazoi medikoengatik zuzentzeko eta ezerezteko eskatzen ziren datuak kasu zehatz horretan mantentzeko beharrezanari buruz ez zegoen txosten mediko eztabaidaekin. Gainera, Bulegoak informazio-errekerimenduak egin zituen behin eta berriz, baina Administrazioak ez zuen erantzunik eman; hori guztia kontuan izanik, aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, Osakidetza ez bazen arrazoitua eta oinarritua eman zezan erreklamatzailak historia klinikoko datuei buruz egikaritutako ezerezte eta zuzenketari buruz, eta Osakidetzari errekerimendua egin zitzaion, ez bazen hori erreklamatzailari eta Bulegoari bidal diezaien.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bi errekerimendu egin zizkion Osakidetzari, ez bazen arrazoitua jakinaraz zezan; azkenean, ente publiko horrek azaldu zuenez, erreklamazioaren xede den informazioa behin betiko ezabatzeko gestioak egiten ari ziren.

- **Historia klinikoan zuzentzeko eskubidea (ET21-027)**

Erreklamatzailak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatu zion bere historia klinikoa zuzen zezala, zehazki txertoen atalean. Bertan, «Uko egin dio» adierazpena kentzeko eskatu zuen, bere esanetan txertoa jartzeari uko egin ez ziolako. Eskatutako informazioaren arabera, osasun-karpetan, txertoen atalean bi ohar agertzen ziren SARS CoV-2 txertoari buruz, data berberarekin, baina itxuraz kontraesankorrak ziren bi adierazpenekin: «Uko egin dio» eta «Ez dagokio» ziren adierazpen horiek.

Erreklamazioa baietsi zen, eta Osakidetzari errekerimendua egin zitzaion, «uko egin dio» adierazpena ken zezan, ez baitzen egiaztatuta geratu txertoa jartzeari uko egin zionik. Osakidetza Bulegoari komunikatu zion eskatu bezala adierazpen hori ezabatu zuela.

- **Eskubideak abusuz egikaritzea**

Azkenik, honako kasu hau azaldu behar da: 2021eko azken hiruhilekoaren eta 2022ko lehenengo hilabeteen artean, pertsona batek eskubideak babesteko erreklamazio ugari jarri zituen Euskadiko hainbat administrazio publikotan eta, jarri eta egun gutxira, erreklamazio horiei esanbidez uko egin zien. Ezetsi egin ziren erreklamazio horiek guztiak, baita erreklamatzailak ez bazpenen aurka jarritako errekursoak ere.



Jarraian doa ezetsitako erreklamazioen nahiz ezetsitako administrazio-errekurtsoen espediente-zenbakien zerrenda:

ET21-047, ET21-048, ET21-049, ET21-055, ET21-058, ET21-059, ET21-060, ET21-061, ET21-062, ET21-063, ET22-001, ET22-002, ET22-003, OT22-001, RR21-021, RR21-023, RR21-024, RR21-025, RR21-026, RR21-027, RR21-028, RR22-001, RR22-003, RR22-004, RR22-005, RR22-006, RR22-009, RR22-010.

Pertsona horrek aurkeztu eta aipatutako espediente-zenbakiekin izapidetu ostean jaso ziren erreklamazio ugariak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2022ko martxoaren 31ko Ebazpenaren bidez ezetsi ziren, kasu horretan eskubidea abusuz egikaritzen ari zelako. Egiaztatuta geratu zenez, inguruabar subjektibo bat gertatzen zen, helburu serio eta legitimorik ez egotea, bai eta inguruabar objektibo bat ere, eskubidea neurrigabeen egikaritzea.

3.1.4 Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea

- **Hautaketa-prozesu batean NAN bat argitaratzea (ET21-017)**

Erreklamatzailerak datuen tratamendua mugatzeko eskubidea egikaritu nahi zuen, kezkatuta baitzegoen edozein pertsonak bere Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eskuratu ahal izateagatik. Izan ere, zenbaki hori Osakidetzaren hautaketa-prozesu bateko zerrendan agertzen zen, eta zerrenda hori irispide publikokoa zen.

Uzi horren aurka Osakidetzak alegatu zuenez, datuak babesteko araudiak mugatze-eskubide hori murrizteko gaitasuna ematen zion arduradunari, une hartan hautaketa-prozesu horren zigor-arloko ikerketa egiten ari baitzen.

DBEOren 23.1 artikuluan hain zuzen xedatzen denez, tratamenduaren arduradunak mugak jarri ahal izango dizkio datuak babesteko eskubideari, ondasun juridiko batzuk babestearren; horien artean, d) letran beren-beregi aipatzen da arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea eta, horrenbestez, Osakidetzak tratamendua mugatzeko eskubidea ukatu izana ez zen bidezkoa; dena dela, zigor-arloko prozesua amaitu ondoren, erreklamatzailerak berriro ere eskatu ahalko zukeen dagozkion eskubideak egikaritzeko.

Osakidetzak, bere alegazioetan, ez zuen aurkeztu ustezko ukoaren frogarik; hortaz, aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen eta enteari errekerimendua egin zitzaion, historia klinikotik aipamen hura ken zezan.

Ebazpena eman ondoren, erreklamatzailerak idazki bat bidali zuen, adierazpena artean kendu ez zela adierazteko. DBEBk Osakidetzari errekerimendua egin zion, emandako ebazpena bete zezan eta, azkenik, enteak komunikatu zuen erreklamatzaileraren historia klinikotik aipamena kendu zela.

3.2 SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo instituzio publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta, jarduera horiek arau-hausteak izan daitezkeelakoan. Atal honetan, 2022an, barruti jakin batzuetara sartu ahal izateko osasun-datuak eskatzeagatik aurkeztutako salaketak aipagarriak izan ziren.



Onartutako salaketak arau-hauste prozedura bihurtu ziren edo artxibatu egin genituen, ez zegoelako prozedura hori hasteko nahikoa arrazoirik.

3.2.1 Onartu gabeko salaketak

2022an salaketa ugari ezetsi genituen, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko entitateei buruzkoak izateagatik, eta halakoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontrolarik kanpo egoteagatik. Halakoak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali genituen (DN22-010, DN22-011, DN22-012, DN22-018, DN22-026, DN22-027, DN22-035, DN22-041, DN22-042, DN22-045, DN22-050, DN22-059, DN22-062, DN22-064, DN22-071).

3.2.2 Artxibatutako salaketak

- **Bideozaintzako kameren monitoreak Sestaoko komisarian (DN21-043)**

Salaketa aurkeztu zuen entitateak bere idazkian adierazi zuenez, bideozaintzako monitoreak polizia-etxera sartzen zen edonork ikusteko moduan zeuden. Hala ere, Sestaoko Udalak emandako azalpenetan eta aurkeztutako argazki bidezko ebidentzietan agertzen zenez, behar bezalako neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu ziren, hain zuzen ere salatutako jokabideak eragozteko.

Horrenbestez, kasu hartan, zantzuen aldetik ez zegoen arrazoizko justifikaziorik zehapen-espediente bat izapidetzeko, eta salaketa artxibatu zen.

- **Bideozaintzari buruzko informazio-kartelak San Telmo Museoan (DN21-046)**

Salaketan ohartarazi zenez, San Telmo Museoko erakusketa batean bideozaintzako kamerak zeuden, baina horri buruzko informazio-kartelik ez. Bideozaintza erabiltzeak datuen babesaren aldetik dakartzan eginbeharretako bat da informatzeko eskubidea betetzea eta, horretarako, informazio-bereizgarri bat erabiltzea.

Donostiako Udalak emandako erantzunean eta aurkeztutako argazki bidezko ebidentzietan agertzen zenez, frogatuta geratu zen nahitaezko informazio-kartelak bazeudela, baina kartel horietan aipatzen ziren legeak zaharkituta zeudela; bada, salaketa aurkeztu zenetik akats hori zuzendu egin zen. Beraz, salaketa artxibatu zen.

- **Osakidetzako enplegatuen prestakuntzari buruzko datuak galtzea migrazio batean (DN21-048)**

Datuen migrazio batean gertatutako oker baten ondorioz Osakidetzako langileen merezimenduei buruzko datuak galtzeagatik aurkeztutako salaketa artxibatu zen.



Arau-haustea deklaratzeko prozedura bat irekitzeko froga edo zantzurik aurkeztu ez zenez, artxibatu egin zen.

- **Ikasleen txertaketari buruzko datuak erabiltzea ikastetxean antolakuntzako neurriak hartzeko (DN21-049)**

Erreklamatzailleak salaketa aurkeztu zuen ikastetxe baten eta bi irakasleren aurka, adingabeen datu pertsonalak jasotzeagatik horretarako adostasunik izan gabe, eta datu horiek Covid-19aren aurkako txertaketan oinarritutako antolaketa, bakartze eta bereizkeria neurriak hartzeko erabiltzeagatik.

Egindako erreklamazioa artxibatu zuen DBEBk, bere iritziz ez zelako egin ikasleen txertaketari buruzko datuen tratamendurik ikastetxeko ikasleen taldeak antolatzeke. Ikasleak taldekatzean, ikastetxeetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2021-2022 ikasturterako COVID-19aren aurka hartutako prebentzio-neurriei jarraitu zitzairen. Neurri horiek ikasturtearen hasieran ezarri ziren, printzipio pedagogiko eta metodologikoei eta Covidaren aurka jarduteko protokoloan ezarritako jarraibideei jaramon eginez, eta neurri horiek ez ziren aldatu txertaketaren zioz.

- **COVID-19 ziurtagiria eskatzea kirol instalazioetara eta igerilekuetara sartzen uzteko (DN21-052)**

Udal igerilekuetako abonatu batek salatu zuenez, instalazioetara sartzeko bereziki babestutako datuen tratamendua eskatzen zen, zehazki osasunari buruzko datuena, txertoa jarrita zuela edo COVID-19a jasan zuela egiaztatu behar baitzuen.

Erreklamazioa artxibatu zen, tratamenduaren arduradunak legitimazio-oinarria zeukalako igerilekuetako abonatu baten osasunari buruzko datuen tratamendua egiteko eta txertoa jarri izana edo COVID-19a jasan izana ez egiaztatzeagatik igerilekuetara sartzen ez uzteko.

Osasun publikoaren arloko araudian ezarrita dagoenaren arabera ondorioztatu zen tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen tratamendua egiteko funtsezko legitimazio-oinarri bat zeukala, alegia, funtsezko interes publiko bat, osasun publikoaren arloko interes publiko bat, hori tratamendurako legitimazioa ematen duen kasu bat baita Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2 artikuluaaren arabera.

- **Covid Ziurtagiri Digitala eskatzea prebentzio-neurri gisa (DN22-007)**

Salatu zenez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egokitu egin zuen abenduaren 14ko Agindua, lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baitzen Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna, 2021eko urriaren 6ko Aginduan, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak ziren prebentzio-neurriei buruzkoan ezarritako neurrien osagarri gisa. Erreklamatzailleak bere idazkian ez zuen azaldu datu pertsonalen tratamendu zehatzei buruzko egitaterik. Aitzitik, besterik gabe salatu zuen agindu horretan bildutako neurriak abian jarri izana herritarren oinarritzko eskubideen urraketa zela, bereziki datu pertsonalak babesteko eskubidearena.



Aginduaren xedea zen Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna ezartzea establezimendu jakin batzuetara sartzeko eta bertan egoteko (mota jakin batzuetarako jatetxe eta establezimenduak, aisialdirako eta dantza egiteko aukera ematen duten jarduerak egiten baziren), osasun publikoaren zaintza eta kontrolaren berezko prebentzio- eta geldiarazte-neurrien osagarri gisa, kontuan hartuta COVID-19aren pandemiaren aurrekaria. Agindu hartan jasotzen ziren neurriak Auzitegi Gorenaren 2021eko 1412/2021 zenbakiko epaiaren bitartez berretsi ziren, auzitegi horren iritziz Covid Ziurtagiria eskatuz ez baitzen mugatzen datuak babesteko oinarritzko eskubidea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ez da eskuduna erreklamazio horretaz arduratzeko. Izan ere, Bulegoari ez dagokio Eusko Jaurlaritzaren araugintza-ahala kontrolatzea; beraz, erreklamazioa ez zen onartu.

- **Udal batek hiri antolamenduko plan nagusi (HAPN) baten aurkako alegazioak komunikatzea plana idatzi zuen taldeari (DN22-013)**

Salatu zenez, beste hainbat pertsonaren artean erreklamatzailerak udalerrri bateko HAPN baten aurka udal batean aurkeztutako alegazioak ente ezezagun bati bidali zitzaizkion (eta ez plana idatzi zuen taldeari), erreklamatzaileraren nortasun-datuak barnean zirela.

Salaketa artxibatu zen, udalak -Bulegoak hala eskatuta- aurkeztutako agiriak aztertu ondoren egiaztatuta geratu zelako udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusia (HAPN) eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) idazteko zerbitzuak arkitekto bati esleitu zitzaizkiola administrazio-kontratu baten bitartez, eta datu pertsonalen tratamendua egiteko mandatua egin zuela udalak -arduradun gisa- esleipendunaren alde. HAPNren aurkako alegazioak aurkeztu zituztenen datu pertsonalen tratamendua, eragileak txostena prestatzeko egindako hori, arduradunaren kontura egin zen; ez zegoen egiaztatuta datu pertsonalen tratamendua egitean datuak babesteko araudia urratu zenik.

- **Covid pasaporte eskatzea udalaren kultura- eta kirol-instalazioetara sartu ahal izateko (DN22-019)**

Salaketan azaldu zenez, udalaren kultura- eta kirol-instalazioetara sartu ahal izateko covid pasaporte eskatzean, udala bereziki babestutako datuak tratatzen ari zen, halakoak baitira herritar baten osasunari buruzko datuak.

Salaketa artxibatu zen, udalak kultura- eta kirol-instalazioetara sartu ahal izateko Covid pasaporte eskatzean datu pertsonalekin egindako tratamenduak legitimazio-oinarri nahikoa zeukalako 2016/679 Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2.i) artikuluan; horren arabera, bereziki babestutako datuen tratamendua egin ahalko litzateke osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio (esate baterako, osasunaren aurkako mugaz gaindiko mehatxuetatik babestea, edo osasun-laguntzaren eta medikamentu edo osasun-produktuen kalitate-maila altua bermatzea), Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidea oinarri hartuta, zeinak neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko eskubide eta askatasunak babesteko, sekretu profesionala bereziki.



- **A-636 autobiko kontrol-puntuetatik igarotzen diren ibilgailuen matrikulen irakurketaren ondorioz egindako datu pertsonalen tratamendua (DN22-020)**

Erreklamatzailleak BIDEGI SA foru-sozietate publikoaren komunikazio bat jaso zuen. Komunikazio horrek zioenez, bere jabetzako ibilgailua A-636 autobian detektatu zuten Beasain eta Bergara artean, inolako ordainbide baliodunik gabe. Salaketaren ardatza honako hau zen: bazitekeen sozietate horrek bere datu pertsonalak behar ez bezala erabili izana, datuak hala erabiltzeko ez baitzuen adostasunik eman eta, gainera, gune hori bideokameraz zainduta zegoela eta bere ibilgailuaren daturik atzitzea posible izan zela adierazteko informazio-kartelik ez zen ikusten.

Ezarritako kontrol-puntuetatik igarotzen diren ibilgailuen matrikulen irakurketan oinarritutako kontrol-sistema («free flow») abian jartzea datu pertsonalen tratamendua da, eta horregatik DBEOren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoan (DPBEDBLO) ezarritako printzipio eta betebeharren mende egon behar da. Printzipio horien artean nabarmentzekoak dira zilegitasuna eta gardentasuna.

Alde batetik, datuen tratamendu horren helburua da BIDEGI SAK (tratamenduaren eragile gisa) kanon baten ordainketa zaintzea eta kontrolatzea eta, beraz, zerbitzu edo azpiegitura publiko jakin batzuen funtzionamendu normala ziurtatzea, eta tratamendu-arduradunaren (Gipuzkoako Foru Aldundiaren) berezko eginkizunak betetzeko egiten da, halako moduz non ez baita beharrezkoa ukituen adostasuna. Tratamenduaren oinarri juridikoa DBEOren 6.1 e) artikuluan jasotzen da, eta 4/2020 Foru Arauan ezartzen da.

Bestalde, eta gardentasunaren printzipioan arreta jarrita, egiaztatu zen autobiarako sarbideetan informazio-kartelak zeudela, horien artean web-orriaren bidezko informazioa adierazten zuen bat, eta autobiar buruzko informazioa (free-flow sistemadun bidesaria) BIDEGI Saren web-orrian. Horrenbestez, informazioa emateko eginbeharra beteta zegoela esan zitekeen.

Horregatik guztiarengatik, erreklamazioa artxibatu zen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz ez zegoelako egiaztatuta datu pertsonalen tratamendua egitean datuak babesteko araudia urratu zenik.

- **Sarbide-kontrolaren grabazioak behar bezala ez erabiltzea (DN22-021)**

Salaketaren xede ziren kamerak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian instalatuta daude; segurtasunerako kamerak dira eta bide publikoko bideak hartzen dituzte. Irudi horien tratamendua eraentzen dute abuztuaren 4ko Lege Organikoak, segurtasun-indar eta -kidegoek bideokamerak erabiltzea arautzen duenak, eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak. Tratamendu hori otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren eremutik kanpo geratzen da eta, beraz, Bulegoaren kontroletik kanpo dago, azken lege horren 2.2 artikuluko d) apartatuan eta 17. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.



- **Covid pasaportearen erregistratzea udal instalazioetara sartzeko (DN22-025)**

Erreklamazioa artxibatu zen, udalak erreklamatzaileraren covid ziurtagiria eskatzeak legitimazio-oinarri nahikoa zeukalako 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.2.i) artikuluan; horren arabera, bereziki babestutako datuen tratamendua egin ahalko litzateke osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio (esate baterako, osasunaren aurkako mugaz gaindiko mehatxuetatik babestea).

Halaber, ikerketa egin ondoren, udal informazio-sistemetan ez zen detektatu covid ziurtagiriei buruzko datuak biltzeko erregistro edo fitxategi bat ere, eta abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua indarrean egon zen bitartean, bitarteko elektronikoak erabiliz ez zen jaso covid ziurtagiriei buruzko daturik; beraz, zantzuen aldetik ez zegoen justifikaziorik zehapen-espeditente bat izapidetzeko.

- **Diziplina-espeditente batean agertzen ziren datu batzuk lagatzea (DN22-028)**

Erreklamatzailerak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa jarri zuen, diziplina- espeditente baten izapideak egitean espeditente horretan bildutako informazioen zati bat hirugarrenei laga zitzaielako eta, hala, konfidentzialtasunerako eskubidea urratu zelako.

Horrez gain eskatu zituen kontrol-agintaritzak honek alderdi interesdun izan gabe espeditenteetan hartutako ebazpenak.

DBEBk bere ebazpenean deklaratu zuenez, Osakidetza, Osasun Zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuaren Legean jasotako eginbeharra betetzearren, diziplina-espeditentea izapidetzean behar bezala oinarritutako kriminaltasun-zantzuak antzeman zituen eta, hori zela eta, egindako jarduketak horien berri eman zion Fiskaltzari eta espeditentearen izapideak eten zituen, ebazpen judizial irmoen bidez frogatutako egitateak osasun-zerbitzuentzat lotesleak izateagatik.

Alderdi izan gabe prozeduren ebazpenak eskatzeari zegokionez, eskatzaileari jakinarazi zitzaion ez zegoela administrazio-prozedurako interesdunaren eskubidearen babespean.

Horregatik, erreklamazioa artxibatu zen, jarduketak horiek behar bezala justifikatuta egon zirelako.

Errekurtsogileak berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen, eta ezetsi egin zen.

- **Covid pasaportearen eskatzea kirol-instalazioetara sartu ahal izateko (DN22-029)**

Erreklamatzailerak udal baten aurka salaketa aurkeztu zuen, kirol-instalazioetara sartzen utzi ez ziotelako covid pasaportearen aurkeztu ezean; pasaporte hori telefono mugikor batean erregistratuta geratuko zen, baina ez zekien mugikor pribatua ala enpresakoa zen.

Espeditenteko agiriak aztertuta egiaztatu zenez, udalak Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko legitimazio-oinarri nahikoa zegoen 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.2.i) artikuluan.



Salatzaileak esan zuenari erreparatuta, covid ziurtagiria ez aurkezteagatik kirol-instalazioetara ezin izan zenez sartu, 2021ean eta 2022an ordaindutako kuoten zati proportzionalaren itzulketa eskatu zuen.

Horri dagokionez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, egitateak aztertuta ondorioztatu zen ez zegoela arrazoirik salatutako udalari datuen babesaren arloko arau-hauste bat egozteko, erreklamatzaillearen osasunari buruzko datuen tratamendurik ez zelako egin.

- **Covid pasaporte eskatzea kirol-instalazioetara sartu ahal izateko (DN22-030)**

Erreklamatzailleak udalaren aurka salaketa aurkeztu zuen, covid ziurtagiria aurkeztu gabe kiroldegira sartzeari ukatu ziotelako, hala eginez gero ziurtagiri hori erregistratuko baitzuten, hurrengo aldietan erakutsi behar ez izateko.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, kiroldegiaren instalazioetara sartzeko udalak Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeak legitimazio-oinarri nahikoa zeukan 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.2.i) artikuluan.

- **Osasunari buruzko datuen tratamendua egitea (covid ziurtagiria) udal kiroldegira sartzeko (DN22-032)**

Egindako erreklamazioa artxibatu zen; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoaren iritziz salatutako administrazioari ezin zitzaion egotzi datu-babesaren esparruko arau-hauste bat egozteko moduko gertakaririk.

Udal instalazioetara sartzeko kiroldegiak covid ziurtagiria eskatzeak legitimazio-oinarria zeukan Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.2.i) artikuluan; horren arabera, datuen tratamendua egin ahalko litzateke osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio. Bestalde, lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua aipatu zen, zeinaren arabera covid ziurtagiria eskatzeko derrigortasuna ezarri baitzen osasunerako prebentzio-eta euste-neurri gisa.

Derrigortasun hori ezarri zen kiroldegietara, gimnasioetara eta jarduera fisikoa eta/edo kirola egiten zen bestelako barne-espazioetara sartzeko, izan kirolarientzat, laguntzaileentzat nahiz publikoarentzat, espazio itxiak izanez gero, eta kasu horretan hala zen.

- **Historia klinikora bidegabeko irispidea izatea (DN22-037)**

Erreklamatzailleak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu zuen, berak esleituta ez zeukan mediku batek eta gizarte-laguntzaile batek bere historia klinikorako irispidea izan zutelako bere adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe.

Espedienteko agiriak aztertuta egiaztatu zenez, erreklamatzaillearen historia klinikora ez zen izan bidegabeko irispiderik; aitzitik, lehen mailako arretako medikuak zein gizarte-laguntzaileak historia klinikora irispidea izan zuten aldi



guztietan euren eginkizunak bete zituzten; horrenbestez, erreklamazioa artxibatu zen, irispide guztiak behar bezala justifikatuta zeudelako.

Berak esleituta ez zeukan lehen mailako arretako mediku batek irispidea izan zuenean, legitimazio osoa izan zuen, berari osasun-laguntza emateko egin zelako, ez beste ezertarako; berak osasun-laguntza horretarako adostasuna eman zuenez, irispidea izateko lege-gaikuntza zegoen.

Gizarte-laguntzaileak irispidea izan zuenean, laguntza-eginkizunak bete zituen, lehen mailako arretako medikuak esku hartzeko eskatu ziolako erabateko mendetasun-egoeran zegoen pertsona batek ustez jasan zezakeen babesgabetasun-egoera zela eta.

Horregatik, erreklamazioa artxibatu zen, irispide guztiak behar bezala justifikatuta egon zirelako.

Interesdunak RR20-013 zenbakiko berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, eta ezetsi egin zen.

- **Notarioen Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kideen hautaketa-prozedura deuseztatzeko prozedura judizial batean demandatzailearen datuak elkargoko kide diren notarioei komunikatzea (DN22-043)**

Euskal Herriko Notario Elkargoak legitimazio-oinarria zeukan Elkargo Txit Prestuko notarioei ebazpen judiziala -prozesuaren emaitzak nahiz elkargoko Zuzendaritza Batzordeko karguetarako hauteskundeak egin ostean egindako izendapenak deuseztatzeko- jakinarazteko. Ebazpen horren ondorioz hauteskundeak berriro egin behar zirenez, kidegoko notarioak karguetarako hauteskundeetan hautesle edo hautagai izan zitezkeen; beraz, ebazpen judiziala jakiteko interes legitimoa zeukaten. Aurkeztutako erreklamazioa artxibatu zen.

Artxibatze ebaizenaren aurka berraztertze errekurtsoa (RR22-011) aurkeztu zen, eta hori ezetsi egin zen, interes legitimo baten titularrak izanik eskubidea zutelako hauteskunde-prozesua deuseztatzen zuen ebazpen judizialaren berri izateko. Horrek esan nahi zuen ezinbestekoa zela haiei funtsezko elementu batzuk jakinaraztea prozedura judizialean agertu ahal izateko, barne zirela harreman juridiko-prozesalaren datuak, besteak beste demandatzailearen identifikazio-datuak, prozeduran agertu nahi zuten notarioek (inork hala nahi izan balu ere) halakorik gabe ezin izango baitzuten babes judizial eragingarria izateko eskubidea egikaritu berme osoarekin. Berraztertze errekurtsoari buruzko ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri zen administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

- **Udalerrian instalatutako bideozaintzako kameren irudietara irispidea izatea (DN22-044)**

Entitate salatzaileak bere idazkian zioenez, poliziaren bulegoetara sartzen ziren herritar guztiek begiz irispidea izan ahal zuten udal mugarte osoan jarrita zeuden bideozaintzarako kamerek denbora errealean atzitutako irudiak erreproduzitzeko monitoretara.

Txostenak eta argazkiak aztertuta egiaztatu zen salatutako jokabidea eragozteko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu zirela: jendea norbanako gisa eta



baimenarekin sartzen den bulego horretan muga argia dago jendeari arreta emateko mostradorearen eta monitoreak atzean dauzkan mostradorearen artean. Hain zuzen ere, mostradore horiek ez zaizkie jendeari erakusten, eta udaltzaingoko agenteek zaintzen dituzte. Aurkeztutako erreklamazioa artxibatu zen.

- **Datuak lagatzea hirugarren bati (DN22-046)**

Salatzaileak azaldu zuenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak informazio pertsonala komunikatu zion hirugarren bati hainbat aldiz, baina salatzaileak ez zuen frogarik aurkeztu, ezta arrazoizko zantzurik ere, egiaztatu ahal izateko pribatutasuna urratu zela edo Administrazioak erantzukizuna izan zuela. Ez zen zehazten zein erreklamazio komunikatu zitzaion hirugarren horri, ezta komunikazio horrek zer eduki zeukan ere, edo zein datatan egin zen komunikazio hori, edo zehazki, nola jakin zuen datu pertsonalen konfidentzialtasuna urratu zela. Erreklamazioa artxibatu zen.

- **Polizia-datuak komunikatzea (DN22-048)**

Entitate salatzaileak bere idazkian azaldu zuenez, udalak prozedura bat ezarri zuen, zeinean egunero, inolako bereizkuntzarik egin gabe, udaleko ordezkari politikoei herritarren datu pertsonalak eta polizia-datuak (polizia-lana egitean bildutakoak) bidaltzen baitzitzaizkien. Salaketa-idazkiarekin batera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gai horri buruz emandako D22-005 zenbakiko irizpena aurkeztu zen, salatzailearen iritziz udalak irizpen hori urratu baitzuen.

Aurkeztutako agiriak aztertutakoan ez zen egiaztatuta geratu datu pertsonalak eta polizia-datuak inolako bereizkuntzarik gabe laga zirenik. Aipatzen den irizpenean azaltzen denez, tokiko korporazioetan herritarren segurtasuneko eskumenak dauzkaten kideek euren eginkizunak egikaritzearekin zerikusia duten informazioa irispidea izan ahalko dute, lege-eginbehar bat betetzeko beharrezkoa bada, DBEOren 6.1 c) artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, baita tratamendua beharrezkoa denean ere eginkizun bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, DBEOren 6.1 e) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

- **Hirugarren baten datu pertsonalak erreklamatzailerari komunikatzea (DN22-054)**

Salatu zenez, administrazio publiko batek erreklamatzailerari zitazio bat komunikatu zion, berari nahiz beste gurasoari beren seme adingabeari buruz zuzendutakoa, eta zitazio hartan bere datu pertsonalak agertzen ziren.

Espedientea aztertutakoan egiaztatu zenez, erreklamatzutako administrazioak erreklamatzailerari bi zitazioak bidali zizkion biak ere adingabearen gurasoak zirelako, administrazio hori adingabe horren aldeko jarduketak egiten ari baitzen, eta ez baitzegoen beste biderik beste gurasoarekin premiazko eran komunikatzeko.

Salaketa artxibatu zen. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, aplikatu ahal den araudi eta jurisprudentziaren arabera, eta kasuaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, non adingabearen interes goren eta gurasoen eskubideak haztatu



behar baitira, salatutako datu-tratamenduak ez zuen urratzen datuak babesteko araudia.

- **Elkarte bateko kideek Eusko Legebiltzarreko batzorde batean egindako agerraldi baten denbora errealeko emanaldian datu pertsonalak hedatzea (DN22-056)**

Erreklamatzailleak salatu zuenez, elkarte batek Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldi batean bera eta bere seme adingabea identifikatu zituzten, adingabearen informazio sentikorra eman zen eta berari buruzko zenbait gauza esan ziren; agerraldi hori Eusko Legebiltzarrak grabatu zuen eta sare sozialetan osorik argitaratu zen, erabiltzaile batzuen hormetan, kasu guztietan modu irekian. Agerraldi hori hainbat orrialdetan erreproduzitu eta konpartitu zen.

Espedientea aztertuta ondorioztatzen denez, agerraldia Eusko Legebiltzarraren web-orri instituzionalaren bitartez denbora errealean emititu zen, baina ez dago egiaztatuta agerraldiaren grabazioa web-orrira igo zenik. Eusko Legebiltzarrak onartu zuen batzordeetan agertzen diren pertsonen beren hitzaldiak grabatuta jasotzen dituen CD bat ematen zaiela, detaile modura.

Salaketa artxibatu zen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak iritzi hau azaldu baitzuen: legebiltzarreko jardueraren publikotasun-printzipioak eta Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 108. artikuluan agertzen denaren arabera Eusko Legebiltzarraren jardunak gardena izan behar duela dioen printzipioak legitimazioa ematen dute batzordeko agerraldia denbora errealean emititzeko erakundearen web-orriaren bitartez. Erreklamatzailari eta bere seme adingabeari buruzko informazioa legebiltzarreko batzordean egindako agerraldian ematea, ezer izatekotan, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideetan eskua sartzea izan liteke, baina Bulegoak arlo horretan ez dauka eskumenik.

Salaketan azaldu zen Eusko Legebiltzarrarekin berarekin zerikusirik ez zuten hirugarren batzuek agerraldia sare sozialetan hedatu zutela; datu pertsonalen tratamendu hori ez dago Bulegoaren kontrolaren mende, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2. artikuluen arabera.

- **Ertzaintzak erreklamatzaillearen datuak komunikatzea, salerosketako kontratua ezkutuan jakinaraziz. (DN22-063)**

Erreklamazioa artxibatu zen: egindako jarduketetatik ez zen ondorioztatu zehapen-prozedura bat hasteko moduko gertakirik egon zenik, ez baitzen egiaztatuta geratu informazioa ezkutuan emateko iturri bakarra Ertzaintza izan zenik. Hain zuzen ere, erreklamatzailleak berak onartu zuenez, baliteke informazioa beste iturri batetik etorri izana, adibidez eroslearengandik.

Bestalde, egiaztatuta geratu zenez, Ertzaintzak legitimazio-oinarria zeukan erreklamatzaillearen datu pertsonalen tratamendua egiteko, 4/2015 Lege Organikoan, Herritarren Segurtasuna Babestekoan xedatuta dagoenaren babespean, bai eta datu horiek organo jurisdikzionalak komunikatzeko ere, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan ezarritako elkarlan-eginbeharra betetze aldera.



Aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu zen, eta errekurtsio hori ezetsi zen.

3.3 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Halako prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta instituzio publikoei irekitzen zaizkie, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Bukatzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, ohartarazpen-zehapena ezartzea eta neurri zuzentzaileak hartzeko eskatzea.

2022an 20 arau-hauste prozedura berri hasi ziren eta, guztira, 23 ebatzi ziren. Emaiza honako hau izan zen: hogeita bat arau-hauste oso astun eta arau-hauste astun bat deklaratu ziren, eta bi prozedura artxibatu ziren.

Arau-hauste prozeduren artean nabarmentzen dira historia klinikoetara bidegabeko irispidea izateagatik eta osasunari buruzko datu gehiegi tratatzeagatik hasitakoak.

- **Iragarki-ohol batean Kontzejurako deialdien iragarkiak argitaratzea erreklamatzaillearen datuak agerian daudela eta gerora deialdi horiek WhatsApp bidez Kontzejuko herritarrei bidaltzea (PI21-008)**

Administrazio Batzarraren iragarki-oholean Kontzejurako deialdi batzuk argitaratu ziren, erreklamatzaillearen datu pertsonalak agerian zeudela. Geroago, deialdi horiek Administrazio Batzarreko herritarrei bidali zitzaizkien WhatsApp bidez.

Erreklamatzailleak eskatu zuen eguneko gai-zerrendan Administrazio Batzarrera igorritako agiri batzuk sartzeko. Administrazio Batzarrak, eskari hori betetzeko, agiri horiek aginduei erantsi zizkion eta iragarki-oholean argitaratu zituen, 11/1995 Foru Arauaren 20. artikuluan ezarritako lege-eginbehar bat betetzeko. Beraz, erreklamatzaillearen datuen tratamendu hori egiteko legitimazio-oinarri nahikoa zeukan DBEOren 6.1.c) artikulua babespean.

Halaber, Administrazio Batzarrak Kontzejurako deialdiaren aginduak bidali zituen WhatsAppeko talde baten bidez, erreklamatzaillearen datu pertsonalak agerian zeudela, erreklamatzaileri informaziorik eman gabe tratamenduaren helburuari edo helburuei buruz, ezta DBEOren 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan ezarritako eskubideak egikaritzeko aukerari buruz edo DBEOren 12. eta 13. artikuluetan eta DPBEBLOren 11. artikuluan ezarritakoei buruz ere.

Horregatik, Administrazio Batzarrari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1 a) artikuluan jasota dagoen gardentasun-printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan aurreikusitako arau-hauste bat izan daitekeelako.

DBEBk ebazpena eman ostean, Administrazio Batzarrak WhatsAppeko taldea desegin zuen.

- **Isunak bidaltzea agente salatzaileen izen-abizenak agerian egonda (PI21-010)**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak herritar bati jakinarazi zion zehapen-prozedura bat hasi zela, eta prozedura horretan agente salatzaileak izen-abizenekin



identifikatzen ziren. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1. c) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat izan daitekeelako.

- **Osasunari buruzko datuak hirugarrenei lagatzea (PI21-013)**

Laneko jazarpenaren zioz eta erreklamatzaileak eskatuta hasitako jarduteko prozedura batean, Hezkuntza Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak espedientean agertzen diren agiri guztiak entregatu zizkion salatuari, salatzailearen osasunari buruzko informazioa barnean zela.

Administrazioak salatuari alderdi salatzailearen osasunari buruzko datuak -DBEOren 9. artikulua arabera bereziki babestu beharrekoak- helarazteak ez du proportzionaltasun irizpidea betetzen. Erreklamatutako Administrazioari ohartarazpena egin zitzaion, DBEOren 5.1c) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik.

Erreklamatutako Administrazioak hartutako neurriak jakinarazi zizkion Bulegoari.

- **Covidak jotako osasun-langileen bajari buruzko datuak jasotzen zituzten posta elektronikoko mezuak bidaltzea (PI21-014)**

Salatu zenez, ospitale bateko bi gainbegiralek bidalitako posta elektronikoko mezu batzuetan Covidarengatik bajan zeuden osasun-langileen osasunari buruzko datuak agertzen ziren.

Osakidetzak alegatu zuenez, tratamendua beharrezkoa zen osasun-zerbitzuak kudeatzeko; hain zuzen ere, inguruabar hori da osasunari buruzko datuen tratamendurako legitimazioa ematen duten kasuetako bat.

Dena dela, osasunari buruzko datuak birbidali ziren, eta hori osasun-zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoa zenik ez zegoen justifikatuta. Bestalde, datuak birbidaltzearen helburua ospitalean Covidaren ondorioz zegoen egoerari buruzko informazioa ematea izan balitz, helburu hori betetzeko positibo izan ziren langileen kopurua eman ahal zen, nortasunik agerrarazi gabe.

Beraz, Osakidetzari ohartarazpena egin zitzaion, DBEOren 5.1 a) artikuluko zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik; halaber, neurriak hartzeko errekerimendua egin zitzaion, bere lan-sistemetan datuak babesteko araudiaren xedapenak errespetatu zitezkeen.

Osakidetzak DBEBri ez zion jakinarazi neurririk hartu zuen ala ez. Erreklamatzaileak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, eta errekurtso hori ezetsi zen. Hala, errekurritutako ebazpena berretsi zen, zuzenbidearen arabera izateagatik.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI21-015)**

Espedientean dauden agiriak aztertutakoan, egiaztatu zen Gurutzetako Ospitaleko arlo bateko arduradunak irispidea izan zuela hainbat aldiz salatzailearen historia



klinikora, ukituaren adostasunik gabe; gainera, irispidea izatea ezin zen justifikatu lanbide- edo laguntza-jarduera batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zitzaion, salatutako jokabidea osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioaren urraketa zelako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikulua dioenaren arabera; gainera, lege-testu horren beraren 83.5 a) artikulua arabera arau-haustea zen.

- **Udal eraikin baten sarbide-kontrolaren irudiak bide publikotik ikusteko moduan egotea (PI21-016)**

Salatzaileak jakinarazi zuenez, Bilboko Udaleko sarbide-kontrolako telebista-zirkuitu itxiko monitoreetan agertzen ziren irudiak eraikinaren kanpoaldetik ikusteko moduan zeuden, kalean bertan dauden kristalezko hormetan zehar.

Datuak babesteko araudiaren arabera, datuen tratamendua segurtasun-bermeekin egin behar da, osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioaren arabera. Halaber, tratamenduaren arduradunak segurtasun hori zaintzeko antolakuntzako neurri eta neurri tekniko guztiak hartu behar ditu. Udalak binilozko pantaila batzuk instalatu zituen, baina ohartarazpena egin zitzaion, osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Dena dela, ez zen neurri zuzentzailerik eskatu behar, lehendik hartu baitziren.

- **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari datu pertsonalak komunikatzea (PI21-017)**

LANBIDEk, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudia aplikatzeko, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatu zuen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan, erreklamatzaileraren izenean, baina haren adostasunik gabe. Horretarako, erreklamatzaileraren datu pertsonalak komunikatu zizkion erakunde publiko horri, erreklamatzailera identifikatzeko eta prestazio hori jasotzeko prozedura instruitzeko.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian xedatzen da autonomia-erkidegoek datu pertsonalak komunikatuko dizkiotela Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, interesdunen izenean prestazio hori eskatzeko, baina betiere aurretiaz interesdun horien adostasuna izanik.

LANBIDEri ohartarazpena egin zitzaion, zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Erreklamatzaileraren informazio pertsonala tratatu zuen, tratamendu hori legitimatzeko oinarri juridikorik gabe, eta jokabide hori arau-haustea da DBEOren 83.5 a) artikulua arabera. Horrenbestez, errekerimendua egin zitzaion neurri zuzentzaileak har zitzan, neurri horien bidez bermatzen baita euren eginkizunak egikaritzean datu pertsonalen tratamendurako oinarrizko printzipioen errespetua eta, halaber, Bulegoari neurri horien berri eman ziezaion.

Erreklamaturako Administrazioak hartutako neurriak jakinarazi zizkion Bulegoari.



- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI21-018)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka salaketa aurkeztu zen, enteko profesional batzuen historia klinikoetara irispidea izan zuelako haien buruzagi zen beste profesional batek (DN22-022/23/26/34/47).

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu zen Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatibo horiek erreklamatzailen historia klinikora irispidea izan zutela eta horretarako ez zegoela justifikaziorik laguntza- edo administrazio-jarduketa batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurriak har zitzaizkion, berritoki ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.

- **Datu pertsonalak argitaratzea udal aldizkari batean (PI22-001)**

Udal batek udal aldizkari batean zigor-arloko epai bati buruzko informazioa argitaratu zuen, epai horretan alderdi izanik, eta aurkako alderdiaren izen-abizenak aipatu zituen. Udalari ohartarazpena egin zitzaion eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.a) artikuluan aldarrikatutako zilegitasunaren printzipioa urratu zela deklaratu zen, tratamendua legitimatzeko oinarri juridikorik ez zegoelako.

- **Osasun-datu gehiegi tratatzea (PI22-002)**

Erreklamatzailak salatu zuenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak egindako agiri batzuetan (errutinazko analisiak, erradiologiako kontsulta-orriak, sail arteko agiriak...) salatzailearen osasunari buruzko datu batzuk agertzen ziren; osasun-laguntza emateko prestatu ziren, baina ez ziren beharrezkoak horretarako, eta osasun-arloko profesionalek ez ezik administrazioko langileek ere irispidea izan zuten datu horietara (DN21-040).

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta DPBEBLOren 72.1.a) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurriak har zitzaizkion, berritoki ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.



- **Udaltzaingoko agente batzuei diziplina-espedienteak irekitzea kamerak, GPSak etab. erabiliz (PI22-003)**

Vitoria-Gasteizko Udalak ikerketa-jardun batzuk egin zituen, diziplina-espediente bat hastea egokia zen ala ez aztertzeko; bada, jardun horietan ikertutako agente bakoitzari komunikatu zitzaion bildutako informazio guztia, bai salatzaileari buruzkoa, bai ikertutako gainerako pertsonen buruz lortutakoa. Udalari ohartarazpena egin zitzaion, jokabide horrekin Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan aldarrikatutako datuen minimizazioaren printzipioa urratzen zelako.

- **Posta elektronikoko helbide pertsonalak lan-arloko helburuetarako erabiltzea eta mezuak ezkutuko kopiarik gabe bidaltzea (PI22-004)**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzaingoaren Buruzagitzak agenteei posta elektronikoko helbide pertsonal bat eskatu zien, lan-arloko gaiei eta komisariaren kudeaketaren barneko alderdi batzuei buruz informatzeko. Posta elektronikoko mezuetakoa bat edo beste bidaltzean, ezkutuko kopiaren funtzioa ez zen erabili.

Vitoria-Gasteizko Udalari ohartarazpena egin zitzaion posta elektronikoko helbide pertsonalak lan-arloko helburuetarako erabiltzeagatik, horrek DBEOren 5.1 a) artikulua urratzen zuelako (zilegitasunaren printzipioa), eta posta elektronikoko mezuak ezkutuko kopiarik gabe bidaltzeagatik, horrek 5.1 d) artikulua urratzen zuelako (osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa).

Vitoria-Gasteizko Udalak komunikatu zuenez, plantillari lan-arloko informazioa komunikatzeko tresna bat -blog bat- abian jarri zen, eta agenteentzako posta elektronikoko kontu korporatiboak sortzeko prozesua abian zegoen.

- **Espedientepeko agente baten osasunari buruzko datuak kontsultatzea (PI22-005)**

Salatu zenez, Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko agente baten aurkako diziplina-prozedura baten instrukzioa egiten zuen organoak espedientepeko agentearen baja medikoaren egoera kontsultatu zuen, baita geroagoko alta ere, prozedura geldiarazteko eta gerora horri berriro ekiteko. Organo instrukziogileak agentearen egoera medikoa kontsultatzea datuen tratamendua da eta datuak babesteko araudiaren mende dago; bada, araudi horretan osasunari buruzko datuak bereziki babestuta daude.

Udalak baimena dauka agentearen osasunari buruzko datuen tratamendua egiteko, laneko altak eta bajak kudeatzeko. Organo instrukziogileak, berriz, zehapen-prozedura bultzatzeko beharrezko jardunak egin ahal ditu; kasu horretan, agentearen osasunari buruzko datuak bildu zirenean zegoen helburua ez zen beste helburu baterako tratatu ziren, egindako tratamendua datuak babesteko araudiaren arabera legitimatzeko oinarri juridiko batera jo gabe.

Vitoria-Gasteizko Udalak jakinarazi zuenez, diziplina-espedienteak izapidetu behar zituzten pertsonen jarraibideak eman zitzaizkien, beren jardunak datuen babesari buruzko araudiaren arabera egin zitzaten.



- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI22-006)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka salaketa aurkeztu zen, erreklamatzaillearen historia klinikora irispidea bidegabeki izan zutelako profesional batzuek, haren adostasunik gabe eta hark jakin gabe.

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatibo batzuek irispidea izan zutela hainbat aldiz erreklamatzaillearen historia klinikora, ukituaren adostasunik gabe; gainera, irispidea izatea ezin zen justifikatu laguntza-jarduera batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurriak har zitzaizkan, berritoki ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.

- **Osasun-datu gehiegi tratatzea (PI22-007)**

Erreklamatzailleak salatu zuenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak historia kliniko osoa bidali zion epaitegi bati, agiri jakin batzuk eskatzeko errekerimendua egin ziotelako (DN22-024).

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta DPBEBLOren 72.1.a) artikuluan arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurriak har zitzaizkan, berritoki ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.

- **Historia klinikora hainbat aldiz irispidea izatea (PI22-008)**

Erreklamatzailleak salaketa aurkeztu zuen, norbaitek bere historia klinikora irispidea izan zuelako hainbat aldiz, bere ustez bidegabeki.

Osakidetzaari errekerimenduak egin zitzaizkion hiru aldiz, gai horri buruz informazioa eman zezan, baina erantzunik eman ez zuenez, arau-hauste prozedura bat ireki zen. Hasteko erabakiaren aurkako alegazioetan, Osakidetza esan zuen irispideak erreklamatzaillearen laneko osasunaren zaintzarekin zerikusia zuten probetarako izan zirela.

Irispideei zegokienez salaketa artxibatu zen, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoaren babespean egin zirelako eta, ondorioz, DBEOren 9.1.h) artikuluan osasunari buruzko datuak tratatzeko debekua dela eta ezarritako



salbuespenean kokatzen zirelako (osasunari buruzko datuen tratamendua egitea laneko medikuntzaren helburuetarako).

Hala ere, Osakidetza ohartarazpena egin zitzaion DBEBri ez laguntzeagatik; halaber, errekerimendua egin zitzaion, haurtutako neurriak hilabeteko epean komunika zitzaion, kontrol-agintaritzari benetan eta modu efektiboan laguntza emateko.

Osakidetza ez zuen komunikatu inolako neurririk.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI22-009)**

Aurkeztutako salaketan azaltzen zenez, norbaitek erreklamatzailaren historia klinikora irispidea izan zuen hainbat aldiz, bidegabeki.

Informazio-errekerimendua egin zen birritan, baina Osakidetza erantzunik eman ez zuenez, arau-hauste prozedura bat ireki zen.

Salatutako enteari ohartarazpen bikoitza egin zitzaion: alde batetik, DBEOko zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik, ezin izan zelako frogatu irispidea izatean zilegitasunez jokatu zenik eta, bestetik, kontrol-agintaritzari laguntzarik ez emateagatik; halaber, errekerimendua egin zitzaion, antolakuntzako neurri egokiak har zitzaion erantzukizun proaktiboari buruzko eginbeharrak betetzen zirela bermatzeko eta DBEBri behar bezalako laguntza emateko, bai eta hilabeteko epean hori guztia egin izana komunikatzeko.

Osakidetza horri buruz ez zuen ezer ere komunikatu.

- **Posta elektronikoko mezuak hirugarrenei bidaltzea (PI22-010)**

Izapidetutako arau-hauste prozeduran egiaztatu zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak posta elektronikoko mezu bat bidali ziela anbulantzia-zerbitzu baten esleipendun izan zen enpresako zuzendaritzako langileei. Posta elektronikoko mezu horri salatzailearen informazio-eskari bat erantsi zitzaion. Hala ere, ezin zen ondorioztatu komunikazio horretan datu pertsonalak jasotzen zirenik, identifikazio-elementu bakarra sindikatu baten posta elektronikoko kontua zelako, eta posta elektronikoko mezuaren edukian ezin zelako pertsona fisiko bat ere identifikatu. Azkenean, prozedura artxibatu zen.

- **Ikastetxe bateko irakasleen datu pertsonaletara irispidea izatea (PI22-011)**

Espedienteko agiriak aztertutakoan egiaztatu da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko Lanbide Heziketako ikastetxe batean irakasleek ikastetxeko gainerako irakasleen datu pertsonaletara irispidea izan zutela aplikazio informatiko baten bitartez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat izan zitekeelako.



- **Posta elektronikoko mezuak ezkutuko kopiarik gabe bidaltzea (PI22-012)**

Lehiaren Euskal Agintaritzak posta elektronikoko mezu bat bidali zien instituzio horren hamargarren urteurrenaren ospakizunetara gonbidatutako pertsonai. Posta elektronikoko mezu hori ezkutuko kopiarik gabe bidali zen, eta gonbidatu guztien posta elektronikoko helbideak agerian zeuden.

Lehiaren Euskal Agintaritzari ohartarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat zelako. Ohartarazpenari buruzko ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri zen administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

- **Udaltzaingoak osasunari buruzko datu gehiegi tratatzea (PI22-013)**

Azkoitiko Udaltzaingoko bi agentek bide publikoan maskara erabiltzetik salbuesteko ziurtagiri medikoa eskatu zioten erreklamatzailari. Salatzaileak ziurtagiria erakutsi zuen, salbuespenerako arrazoi medikoak ezkutatuta.

Azkoitiko Udalari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1.c) artikuluko datuen minimizazioaren printzipioa urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolaketa-arloko neurriak har zitzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Udalak Bulegoari komunikatu zizkion hartutako neurriak.

- **Osasunari buruzko datuen tratamendua egitea mugikortasunari buruzko inkesta bat betetzeko (PI22-015)**

Informatzaileek mugikortasunari buruzko inkesta bat betetzen zuten, aplikazio informatiko batean, eta galdetegiko galdera guztiak nahitaezko gisa agertzen ziren, nahitaezkoak edo borondatezkoak ziren galderak identifikatu gabe; inkesta horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak informazio pertsonala biltzen zuen, osasunari buruzko datuak barnean zirela.

Inkesta betetzeko errekerimendua jasotzen zuten pertsonak ez zuten aukerarik DBEOren 9.1 artikuluko datu pertsonalen kategoria berezien barruan sartzen den osasunari buruzko informazio hori emateari uko egiteko. Hortaz, DPBEDBLOren 25.2 artikuluan jasota dagoena urratzen zen, artikulua horren arabera datu horiek borondatez emango baitira eta, ondorioz, ukituen berariazko adostasuna dagoenean baino ezingo baitira bildu estatistika arloko helburuetarako. Beraz, ez zegoen oinarri juridikorik erreklamaturako Administrazioak emandako galdetegia betetzean eskatzen zen osasunari buruzko informazioaren tratamendua legitimatzeko.

Erreklamaturako Administrazioari ohartarazpena egin zitzaion, osasunari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiteko oinarri juridikorik ez zegoelako eta, hala, DPBEDBLOren 25.2 artikuluan jasota dagoena urratzen zelako; izan ere, jokabide hori DBEOren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoen arau-haustea da. Halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurri egokiak hartzeko,



prozedura horretan salatutako bezalako gertakaririk ez zedin berriro gertatu eta, halaber, Bulegoari hartutako neurrien berri eman ziezaion.

Erreklamaturako Administrazioak Bulegoari jakinarazi zizkion hartutako neurriak.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI22-016)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka salaketa aurkeztu zen, erreklamaturaren eta haren seme adingabearen historia klinikora irispidea bidegabeki izan zutelako profesional batzuek, haren adostasunik gabe eta hark jakin gabe (DN22-038).

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatibo batzuek irispidea izan zutela hainbat aldiz erreklamaturaren historia klinikora, ukituaren adostasunik gabe; gainera, irispidea izatea ezin zen justifikatu laguntza-jarduera batengatik, Osakidetza ez baitzuen alegaziorik egin, ez DN22-030 zenbakiko salketaren aurka, ez arau-hauste prozeduraren aurka.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolakuntzako neurriak har zitzaion, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipaturakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari ez zizkion komunikatu hartutako neurriak.

3.4 EPAIAK

2022. urtean, Epaitegi eta Auzitegiek lau epai eman zituzten euskal administrazioek Bulegoaren ebazpenen kontra aurkeztutako errekursoetan. Epai horietan guztietan, agintaritzak honek deklaraturako arau-hauste guztiak berretsi ziren, eta aurkeztutako errekursoak ezetsi.

Bereziki aipatzekoa da Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2022ko uztailaren 19an emandako epaia. Epai horretan, goi-auzitegiak ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2020ko abenduaren 17ko epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekursoa.

Epai horretan, Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen Bulegoaren irizpidea. Bide horretatik, auzitegiak dioenez, datu pertsonalen tratamenduaren arduradun batek egindako tratamendua interesdunaren ustez gehiegizkoa bada, eskumena duen datuak babesteko agentzian salaketa aurkeztea dago eta, hala badagokio, agentzia horrek zehapen-espeditatea hasiko du DBEOren 5.1c) artikuluko datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, baina prozedurarako baldintza gisa ezin da exijitu interesdunak tratamendua mugatzeko eskubidea -Erregelamenduaren 18.1d) artikuluan ezarrita dagoen hori- egikaritu dezala.



4 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA

2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrak, Datuak Babestekoak 37.1 artikuluan xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua egiten duena agintaritza edo erakunde publiko bat bada, pertsona bat Datuak Babesteko Ordezkarri (DPD-DBO) izendatu behar da. Halaber, 37.7 artikuluan ezarrita dagoenez, datuak babesteko ordezkarriaren harremanetarako datuak kontrol-agintaritzari komunikatu behar zaizkio.

DBEOk xedatzen du datuak babesteko ordezkarria izendatu behar dela tratamendu-arduradunentzat zein tratamendu-eragileentzat; hala ere, DBEBz ari garela, gaur egun Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legeak ezarritako eskumen-esparrua hartu behar da aintzat, eta bigarren artikuluan zerrendatutako «agintaritza eta erakunde publikoak» dira behartuta dauden subjektuak.

Nabarmendu behar da 2022ko martxoan aldaketa egon zela eta aurrerantzean EAEko administrazio publikoek DBO beste modu batean komunikatu behar dutela. Ordura arte, DBO komunikatzeko pdf formatuko inprimaki bat bete behar zen eta, gerora, DBEBri posta elektronikoko bidez igorri. Aurrerantzean, DBEBren web-orrian eskura dagoen formulario elektronikoko bat bete behar da.

2022ko amaieran DBOen harremanetarako datuak komunikatu zituzten entitate eta erakunde publikoen kopuruari buruzko laburpen orokorra dago honako taula honetan:

ADMINISTRAZIO MOTA	ZENBAT DBO KOMUNIKATUTA
Erakunde autonomikoak	78
Foru erakundeak	14
Toki erakundeak	238
Beste erakunde batzuk	39
Guztira	369

Komunikatutako ordezkarriak, guztira, 2021ean 351 ziren; 2022an, aldiz 369. Beraz, % 4,9ko gorakada egon da.

4.1 TOKI ADMINISTRAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioa udalerriek eta beste toki-elkarte batzuek osatzen dute: horien barruan, DBOen izendapen kopuruak gora egin du nabarmen aurreko ekitaldietatik hona.

Udalez ari garela, honako taula honetan jaso da udalen eta komunikatutako ordezkarrien kopuruen banaketa, populazio-geruzen arabera:



BIZTANLEAK	UDALAK	DPD-DBO	%-a
< 500	62	38	% 61,29
500 - 999	39	28	% 71,79
1.000 - 4.999	79	61	% 77,22
5.000 - 9.999	29	26	% 89,66
10.000 - 19.999	23	21	% 91,30
20.000 - 49.999	13	13	% 100,00
50.000 - 99.999	2	2	% 100,00
> 100.000	4	4	% 100,00
Guztira	251	193	% 76,89

5.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateen multzoak 2021ean zailtasun objektibo batzuk zeuzkan DBO izendatzeko. Bada, egoera horretan dauden toki entitateen ehunekoak gora egin du, orain ere datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak burutzen dituzten pertsonen eskatzen zaizkien berezitasunengatik: lanbide-trebetasunagatik, independentziagatik eta interes gatazkarik ezagatik, alegia.

Ehuneko hori % 100era arte igotzen laguntzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gomendioa da banan banako irtenbideak topatzea DBO edukitzeko erraztasunak bilatze aldera, adibidez honako hauek:

- Foru Aldundiek ematea DBOren zerbitzuak, udal txiki horietako beste hainbeste zerbitzu batzuekin egiten duten bezala, adibidez, administrazio elektronikoarekin; izan ere, hala xedatzen du apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 36. artikulua.
- Udalaz gaindiko DBOak eduki daitezke, udal txiki batzuei modu mankomunatuan edo partzuergo eran zerbitzua emateko, lehendik dauden udalaz gaindiko entitateak baliatuta.
- Kanpoko zerbitzuen kontratuak baliatzea halako zerbitzuak emateko.

4.2 TRATAMENDU-ARDURADUNEN DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREKIN DUTEN LOTURA

Hona hemen izendatutako DBOen kopurua, tratamendu-arduradunarekiko enplegu-arloko loturaren arabera (barnekoa edo kanpoko) eta zein administrazio mota den kontuan hartuta:

ADMINISTRATIO MOTA	DPD-DBO	Barnekoa	Kanpoko	Barnekoen %-a
1-Erakunde autonomikoak	78	25	53	% 32,1
2-Foru erakundeak	14	8	6	% 57,1
3-Udalak	238	52	186	% 21,8
4-Beste erakunde batzuk	39	8	31	% 20,5
Guztira	369	93	276	% 25,2

Euskal administrazio publikoen herenak baino gutxiagok erabaki du barneko DBO izendatzea, batzuk plantillakoa eta beste batzuk beste entitate publiko batekoa.



2021era arte beheranzko joera ikusi zen, aurreko ekitaldiekin alderatuta, kanpoko DBOen izendapenen kopuruak gora egin baitzuen. Aurtengo ekitaldian, barneko DBOen ehunekoak gora egin du apur bat.

Barneko DBO gehienetan izendatu da Eusko Jaurlaritzaren, gainerako erakunde autonomikoen eta foru erakundeen kasuan; dena dela, joera hori are nabarmenagoa da toki entitateetan, kanpoko DBOak hautatzen baitituzte zerbitzu-kontratuen bidez.

Toki administrazioek izendatutako DBO kopurua aztertzen badugu populazioaren arabera, ikusten da 50.000 biztanle baino gehiagoko udal guztiek (Bilbok, Gasteizek, Donostiak, Barakaldok, Getxok eta Irunek) erabaki dutela barneko DBO izendatzea, eta 20.000 biztanlera heltzen ez direnek, ordea, kanpoko DBOen zerbitzuak kontratatzea erabaki dutela.

POPULAZIOA	DPD-DBO	Barnekoa	Kanpoko	Barnekoen %-a
< 500	38	15	23	% 39,5
500 - 999	28	6	22	% 21,4
1.000 - 4.999	61	6	55	% 9,8
5.000 - 9.999	26	2	24	% 7,7
10.000 - 19.999	21	3	18	% 14,3
20.000 - 49.999	13	6	7	% 46,2
50.000 - 99.999	2	2		% 100,0
> 100.000	4	4		% 100,0
Guztira	193	44	149	% 22,8



5 DBEB-KO LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA

Memoria honen aurkezpenean azaldu denez, DBEBko langileek hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dute parte, DBEOk aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz eta pribatutasuna euskal administrazio publikoen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrianari buruz.

Hona hemen DBEBko langileek 2022an eman dituzten prestakuntza-saioen laburpena:

- Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako abokatutza jarduerarako masterrean parte hartzea.
- Hitzaldi bat gardentasunari buruz - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea).
- Hitzaldi bat Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako abokatutza jarduerarako masterrean.
- Gardentasunari eta datuen babesari buruzko ikastaro bat Arabako Foru Aldundiarentzat.
- Ikastaro bat Bilboko Udaleko udaltzaintzat.
- Saio bat IKTen arloko graduondoko batean - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea, 2022ko urtarrilaren 21a).
- Osasuneko Datuen Segurtasunari eta Babesari buruzko XIX. Foroa (SEIS - Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarte, 2022ko otsailaren 16a).
- DBEOri buruzko masterra (UNED - Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala eta AEPD - Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, 2022ko otsailaren 23a).
- «Datu babesari buruzko ikastaroa» (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022-martxoa).
- IVAPen berariazko ikastaroa, «Datuen babesaren erreferenteak EAEko administrazio orokorrean» (Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 16tik 19ra).
- IVAPen ikastaroa - «Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra». (2022ko ekainaren 1etik 30era).
- «Bideozaintza poliziala eta eskubideak» ikastaroa (UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa-UIK eta DBEB, 2022ko ekainaren 13a).
- «Datuen babesa eta toki administrazioa» jardunaldia (BiscayTIK, 2022ko azaroaren 24a).
- «Datuak babesteko erregelamendu orokorra» (IVAP, 2022-azaroa).
- Saio bat telekomunikazioetako masterrean (UPV/ EHU - TIGET Telekomunikazioetako Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa, 2022ko abenduaren 15a).



- XII DBSJ - Datu Babesa eta Segurtasuna Jardunaldia (UPV-EHU - Informatikako Ingeniarien Unibertsitate Eskola, 2022ko abenduaren 20a).
- Datuen babesari, IKTetako zuzenbideari eta zibersegurtasunari buruzko UPV-EHUren masterrean parte hartzea.
- Gardentasunari eta datuen babesari buruzko ikastaro bat Arabako Foru Aldundiarentzat.
- Ikastaro bat Bilboko Udaleko Udaltzaingoarentzat.




6 BARNE KUDEAKETA

6.1 EGITURA ETA LANGILERIA

6.1.1 Organigrama eta langileriaren banaketa



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos





6.1.2 Egitura organikoa eta Lanpostu Zerrenda (LZ)

- **Lanpostu zerrenda**

Lanpostuen zerrendak administrazio-ko barne-egiturak antolatze-ko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldagetak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian. Hori guztia uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren II. tituluko I. kapitulu-ko xedatuta dagoenaren arabera.

Ordenamendu juridikoan jazo diren garrantzi handiko arau-berrikuntza sakonek ekarri dituzten erronka berri eta handiei aurre egin behar izan zitzaizkien administrazio-agintaritzak independente baten funtzionamendu efizienterako, eta erronka horien artean bereziki aipatu behar da 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisiko-ko babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak (DBEO). Horregatik, ezinbestekoa izan zen izapidetzea zenbait lanpostu sortze-ko eta aldatze-ko prozesuak.

Zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenak (EHAA, 2018ko abenduaren 3koa) onartu zuen karrerako funtzionarioentzat gordetako gaur egungo lanpostu zerrenda.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2017ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez onartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulegoko behin-behineko langileen lanpostu zerrenda (EHAA, 2017ko ekainaren 22koa).

6.1.3 Lanpostuak egonkortze-ko salbuespenezko lan-eskaintza publikoa

- **Bitarteko funtzionarioen izendapena**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizte-ko premiazko neurrienak, aukera ematen du, langileak hautatze aldera, salbuespenezko lehiaketaren sistema salbuespenez eta behin soilik erabiltze-ko, hala ezartzen baitu Enplegatu Publikoaren Oinarri-ko Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintza-ko Errege Dekretuak onartutakoak, 61.6 artikuluko bigarren paragrafoan. Hala, 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera, «*Administrazio Publikoek, salbuespen gisa eta EPOELTBren 61.6 eta 7. artikuluetan ezarrita dagoenarekin bat etorritik, deialdi batean eskainiko dituzte, lehiaketa-sistemaren bidez, 2.1 artikuluko ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako eta etenik gabe okupatuta egon diren plaza-ko*».

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren lanpostu-zerrenda osatzen duten lanpostuen artean bi etenik gabe bitarteko funtzionarioek bete dituzte 2015eko azarotik, hau da, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik; beraz, 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarri horretan ezarrita dagoena aplikatu behar zaie.

Hala, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2022ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez onartu zen enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko eskaintza, abenduaren 28ko 20/2021 Legean, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizte-ko premiazko neurriak ezartzekoan eta uztailaren 6ko 6/1989 Legean, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoan xedatuta dagoenaren arabera.



Deialdiko lanpostuen zerrenda honako hau da:

Lanpostuaren izena	Tald./ Azpitald .	Lanpostu -mailako osagarria ren maila .	Dot .	Ber. osag..	HE	Derrig. data
Letratu instruktore-ikuskatzailea	A/A1	27	2	II-B	4	31/01/2006
Letratu instruktore-ikuskatzailea	A/A1	27	4	II-B	4	

Enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren deialdi publikoa Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2022ko abenduaren 26ko ebazpenaren bitartez egin zen.

6.2 2022ko AURREKONTUA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua honako hau ezartzen du: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera*».

2021eko urriaren 11ko Ebazpenaren bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak 2022. ekitaldiko aurrekontuaren aurreproiektua onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzari igortzeko agindu zuen, modu beregainean EAEko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko.

Abenduaren 23ko 11/2021 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 1.4 artikuluan: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontua ere onartzen da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluan*».



6.2.1 2022ko aurrekontu-betearazpena

GASTUEN AURREKONTUA

Kapitulua	KAPITULUEN IZENA	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera
1	Langileen gastuak	1.639.648,00	1.288.684,25	1.267.142,79	21.541,46	% 78,60
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	499.600,00	388.352,18	319.268,60	69.083,58	% 77,73
4	Transferentzia arruntak	9.000,00				% 0,00
6	Inbertsio errealak	92.000,00	47.345,31	30.418,61	16.926,70	% 51,46
	Gastuen batura guztira	2.240.248,00	1.724.381,74	1.616.830,00	107.551,74	% 76,97

SARREREN AURREKONTUA

Kapitulua	KAPITULUEN IZENA	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Betearazpen egoera
3	Tasak eta bestelako sarrerak		6.417,40	6.417,40		
4	Transferentzia arruntak	1.856.779,00	1.856.779,00	1.856.779,00		% 100
7	Kapital transferentziak	15.000,00	15.000,00	15.000,00		% 100
8	Finantza-aktiboak	368.469,00				
	Sarrerren batura guztira	2.240.248,00	1.878.196,40	1.878.196,40		% 83,84

6.2.2 Ekonomia, finantza eta kontabilitate arloetako kontrola

DBEB kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago eta Autonomia Erkidegoko Administrazioeko Ekonomia eta Ogasun Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrolaren menpe; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzaketako eta kontabilitateko jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.

DBEBren kudeaketa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokiak diren aztertzeke, eta Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da kontu-auditoretzak urtean behin egiten.

- **2021eko auditoretza**

2021eko ekitaldiko kontuak, programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriarekin batera aurkeztu ziren horiek, 2022ko martxoaren 21ean ikuskatu ziren. Hona zer dioen auditoretzaren azken txostenak:

«... honekin batera doazen urteko kontuek entitatearen alderdi esanguratsu guztietan 2021eko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera (araudi hori memoriaren 6.2 oharrean identifikatzen da) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.



Egindako lanean oinarrituta, ebatzi dugu gure txostenean ez dagoela zertan jakinarazi arrisku esanguratsuagorik, behintzat auditoretzan kontuan hartutakoen artetik funtsezko auziak sortzeko moduko arriskurik.

Helburuak betetzeari buruzko memorian biltzen den informazioa bat dator 2021eko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin, eta edukia, baita informazioa aurkezteko modua ere, bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin».

6.3 BALIABIDE MATERIALAK

6.3.1 Egoitza

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitza EJI Eri alokairuan hartutako lokaletan dago, Apaizgaitegiaren eraikinaren atzeko aldean. Hona hemen helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua.

6.3.2 Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin da DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Urteko memoria argitaratzea
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua (LAP)

6.3.3 Egitura teknologikoa eta aplikazioen hobekuntza

DBEBk eta EJI Eri izenpetutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan (2022ko Addendaren bidez garatuta) hainbat zerbitzu eta dotazio informatiko eta komunikazio-zerbitzu burutu dira, eta egitura informatikoa hobetu da, bai hardwarearen aldetik, bai softwarearen aldetik.



6.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

6.4.1 Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak hainbat eginkizun eta betebeharrak ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio-plan bat ezartzea dago. Prebentzio-planak erakundeek lan jarduerak guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hori oinarritzeko egin beharra dela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lan-ingurunearen zainketa eta hobekuntza funtsezko jarduerak direla erakundea kudeatzeko.

Prebentzio-jarduerak sendotzearen eta hobetzearen aldetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezarritako daukan Laneko Arriskuen Prebentzioko politika garatzen du eta, horretarako, prebentzioko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzen eta burutzen ditu urtero.

Jarduerak-planen barruan, 2022an honako jarduketak hauek egin dira:

- Segurtasunaren, Higienearen eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruko Jardueren urteko plana
 - Lanpostuko lan-arriskuen ebaluazio etengabea
 - Laneko arriskuei buruzko informazioa langileentzat
- Osasunaren Zainketa arloko Jarduerak Planaren urteko egitaraua
 - Medikuntza azterketak

6.4.2 COVID-19aren ziozko kontingentzia-planak

2022an, SARS-CoV-2 koronabirusaren eraginpean egoteagatik arrisku-eraketarako kontingentzia-planak jasotako neurriak eutsi diegu. Plan hori IMQ Prevención enpresak (kanpoko prebentzio-zerbitzua) egin zuen 2020an, DBEBko hainbat laguntzaileekin batera.

2022ko ekitaldian ezarritako lanaldia eta ordutegiak betetzeari dagokionez, nabarmentzekoa da lanaldiko ordu malmuak ezarri direla eta telelana sustatu dela, lantokietan pertsonen presentzia murriztuz ez egoteko eta garraio kolektiboetan egindako joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko.

Orain arte, Bulegoan egindako esperientzia orokorrean pozik egoteko modukoa izan da, jarduerak betetzeari eta zerbitzua behar bezala emateari begira prebentzio-neurri egokiak den aldetik.

6.5 KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INGURUKETA

6.5.1 Kudeaketa jasangarria

Orokorrean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerak ez dute eragin txarrik ingurumenean eta ez da gastu edo inbertsio handirik egin behar balizko eragin horiek gutxitzeko.



Dena dela, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ingurumenaren kontserbaziorako balioak errespetatzen dituen kudeaketa bat lortzeko konpromisoa hartu du. Konpromiso horren barruan funtsezkoa da baliabide naturalen zentzuzko erabileran oinarritutako kudeaketa, bai eta materialen eta ekipamenduen bizi-zikloa modu efikazean optimizatzea ere.

Teknologia berriak ezartzea eta, horrekin batera, dokumentuak formatu digitalean tratatzea, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko tresnetako bat da, bai eta kostuak eta espazioa aurrezteko modu bat ere.





7 AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK

7.1 AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Kontsultak

2022. urtea		Kopurua
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	2
Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa	Arabako Foru Aldundia	1
	Bizkaiko Foru Aldundia	1
	Bilboko Udala	1
	Andoaingo Udala	1
DBEBren jarduketarekiko beste instituzio batzuk	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	1
Pertsona fisikoak		2
Beste entitate batzuk	Partzuergoa	1
	Elkargo ofizialak	1
	Sindikatuak	1
	Epaitegia	1
	Probintzia Auzitegia	1
JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA		14

Irizpenak

2022. urtea	Kopurua
EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA	13

Legezkotasun-txostenak

2022. urtea	Kopurua
Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak	16
EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA	12

7.2 KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Eskubideak babesteko erreklamazioak

2022. urtea	Kopurua
Jasotako babes-eskariak	23
Ebatzitako babes-eskariak	30



Salaketak

2022. urtea	Kopurua
Aurkeztutako salaketak	75
Ebatzitako salaketak	72

Arau-hauste prozedurak

2022. urtea	Kopurua
Hasitako arau-hauste prozedurak	20
Ebatzitako arau-hauste prozedurak	23





8 BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK

8.1 LANGILERIAREN BANAKETARI BURUZKO DATUAK

2022an DBEBren batez besteko plantilla honako hau zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Zuzendaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	16	13,26
Administrariak	4	2,41
GUZTIRA	21	16,67

Hona hemen plantillaren egoera 2022ko abenduaren 31n, sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaria	1		1
Goi-mailako teknikariak	5	8	13
Administrariak	1	1	2
GUZTIRA	7	9	16

Urteko aurrekontu-plantillako lanpostuen aldakuntza honako hau izan da:

Plantilla, langileen moten eta mailaren arabera	2022ko abe.		2021eko abe.	
	Dotazioa	Benetakoa	Dotazioa	Benetakoa
GOI-KARGUDUNAK				
ZUZENDARIA	1	1	1	1
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK				
AHOLKULARIA I-A / 28 MAILA	1		1	1
FUNTZIONARIOAK				
GOI MAILAKO TEKNIKARIA I-A / 28 MAILA	3	3	3	3
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-A / 27 MAILA	1	1	1	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-B / 27 MAILA	7	7	7	7
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-C / 27 MAILA	1	1	1	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-B / 25 MAILA	2		2	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-C / 25 MAILA	1	1	1	1
ADMINISTRARIA IV-A / 22 MAILA	1	1	1	1
ADMINISTRARIA V-C / 20 MAILA	2	1	2	2
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA VI-A / 18 MAILA	1		1	1
GUZTIRA	21	16	21	20



8.2 AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK

8.2.1 Aurrekontuaren likidazioa

Gastuen aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu-kredituak	Onartutako obligazioak	Ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak abenduaren 31n	Betearazpen egoera	Onartutako obligazioak 2021
Goi-kargudunen ordainsariak	84.074,00	82.993,52	82.993,52		% 98,71	80187,58
Behin-behineko langileak	68.659,00	17.331,86	17.331,86		% 25,24	66982,86
Funtzionarioen ordainsariak	1.129.894,00	927.357,13	927.357,13		% 82,07	1041165,07
Entitatearen konturako gizarte kotizazioak	297.955,00	222.258,37	203.536,55	18.721,82	% 74,59	230747,83
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	32.066,00	20.745,92	17.926,28	2.819,64	% 64,70	23862,58
Langileen prestakuntza eta hobekuntza	6.850,00	1.741,36	1.741,36		% 25,42	736
Gizarte-ekintza	6.150,00	5.535,10	5.535,10		% 90,00	5999,99
Aseguruak	14.000,00	10.720,99	10.720,99		% 76,58	11400,2
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	191.000,00	192.354,06	158.681,44	33.672,62	% 100,71	179244
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	10.000,00	13.910,72	11.554,68	2.356,04	% 139,11	10648,79
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	1.000,00	111,55	111,55		% 11,16	
Altzariak	10.000,00	6.109,50	4.186,22	1.923,28	% 61,10	7216,48
Aplikazio informatikoak	141.100,00	118.478,78	87.786,49	30.692,29	% 83,97	46289,85
Bulegoko materiala	8.000,00	2.751,06	2.728,93	22,13	% 34,39	1659,11
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	15.000,00	14.873,29	14.649,49	223,8	% 99,16	13925,62
Erremintak eta tresnak		225,5	225,5			
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	10.000,00	1.082,16	954,65	127,51	% 10,82	1497,67
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	18.000,00	9.406,26	9.406,26		% 52,26	6194,66
Protokoloa eta ordezkaritza	6.000,00	456	456		% 7,60	2729,3
Komunikazio instituzionala, publizitatea eta propaganda	18.000,00					
Juridikoak eta auzibidekoak	5.000,00					819,66
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	15.000,00	3.460,03	3.460,03		% 23,07	3176,01
Bestelako hainbat gastu		581,39	527,91	53,48		7699,58
Argitalpenak argitaratzea eta banatzea	19.000,00					
Banku-zerbitzuak eta antzekoak		14.914,11	14.914,11			4149,32
Azterlanak, txostenak, aholkularitza	23.000,00					
Profesional independenteen lan teknikoak eta zerbitzuak	9.500,00	9.637,77	9.625,34	12,43	% 101,45	
Enpresentzat, familientzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat	9.000,00					
Eragiketa arruntak guztira:	2.148.248,00	1.677.036,43	1.586.411,39	90.625,04	% 78,07	1746332,16

Aplikazio informatikoak	80.000,00	46.222,21	29.295,51	16.926,70	% 57,78	27738,67
Altzariak	12.000,00	1.123,10	1.123,10		% 9,36	7076,08
Informazio-prozesuetarako ekipoak						1470,15
Kapital eragiketak guztira:	92.000,00	47.345,31	30.418,61	16.926,70	% 51,46	36284,9

Guztira	2.240.248,00	1.724.381,74	1.616.830,00	107.551,74	% 76,97	1.782.617,06
----------------	---------------------	---------------------	---------------------	-------------------	----------------	---------------------



Diru-sarreraren aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu-aurreikuspenak	Onartutako eskubideak	Diru-bilketa garbia	Betearazpenaren %	2021ean onartutako eskubide garbiak
Aparteko diru sarrerak		6.417,40	6.417,40		2.108,60
EAEko administrazio orokorretik	1.856.779,00	1.856.779,00	1.856.779,00	% 100,00	1.802.261,00
Eragiketa arruntak guztira	1.856.779,00	1.863.196,40	1.863.196,40	% 100,35	1.804.369,60
EAEko administrazio orokorretik	15.000,00	15.000,00	15.000,00	% 100,00	15.000,00
Diruzaintzako gerakinak	368.469,00				
Kapital eragiketak guztira	383.469,00	15.000,00	15.000,00	% 3,91	15.000,00
Guztira:	2.240.248,00	1.878.196,40	1.878.196,40	% 83,84	1.819.369,60

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptuak	Onartutako eskubide garbiak	Onartutako obligazio garbiak	Uneko ekitaldiko aurrekontu-emaiza	2021eko ekitaldiko aurrekontu-emaiza
a) Eragiketa arruntak	1.863.196,40	1.677.036,43	186.159,97	58.037,44
b) Kapital eragiketak	15.000,00	47.345,31	(-32.345,31)	(-21.284,90)
I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	1.878.196,40	1.724.381,74	153.814,66	36.752,54
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	1.878.196,40	1.724.381,74	153.814,66	36.752,54

8.2.2 Itxitako aurrekontuen likidazioa

Aurreko ekitaldietan ordaindu gabe geratu ziren obligazioak

Azalpena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarilaren 1ean	Egindako ordainketak
Enplegatzailearen konturako gizarte kotizazioak	20.115,89	20.115,89
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	4.984,62	4.984,62
Altzariak	1.344,16	1.344,16
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	202,90	202,90
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	455,26	455,26
Posta bidezko komunikazioak	74,43	74,43
Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena	1.553,33	1.553,33
Beste zerbitzu batzuk	109,73	109,73
Altzariak	711,48	711,48
Aplikazio informatikoak	27.738,67	27.738,67
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak	805,38	805,38
EJIE. Aplik. informatikoen mantentze-lana eta ustiapena Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak	3.046,57	3.046,57
Itxitako aurrekontuetako obligazioak - 2021	61.142,42	61.142,42



8.2.3 Ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua

	2022	2021
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	1.871.779,00	1.817.261,00
a) Ekitaldikoak	1.871.779,00	1.817.261,00
a.2) Transferentziak	1.871.779,00	1.817.261,00
6. Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	6.417,40	
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)	1.878.196,40	1.817.261,00
8. Langile-gastuak	(-1.288.684,25)	(-1.461.082,11)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	(-1.027.682,51)	(-1.188.335,51)
b) Gizarte kargak	(-261.001,74)	(-272.746,60)
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(-388.352,18)	(-285.250,05)
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	(-388.352,18)	(-285.250,05)
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(-25.610,15)	(-26.297,91)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)	(-1.702.646,58)	(-1.772.630,07)
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	175.549,82	44.630,93
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak		(-94,71)
b) Bajak eta besterentzeak		(-94,71)
14. Arruntak ez diren beste partida batzuk		100,00
a) Sarrerak		100,00
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)	175.549,82	44.636,22
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)		
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)	175.549,82	44.636,22



8.2.4 Ibilgetua

2022	Ekitaldi amaieran metatutako balioak			Ekitaldi hasieran metatutako balioak			Ekitaldiko aldaketak			Ekitaldiko amortizazioak		Baja garbiak
	EAMB			EHMB			EAL			EAm		
	EAMB (gordina)	EAMB (amortizazioa)	EAMB (garbia)	EAMB (gordina)	EAMB (amortizazioa)	EAMB (garbia)	EAL (berria)	EAL II. kapituluak	EAL (bajak)	EAm (amortizazioa)	EAm (bajak)	
Aplikazio informatikoak	651.277,92	565.152,02	86.125,90	605.055,71	542.722,89	62.332,82	46.222,21			22.429,13		
Bulegoko ekipak	19.633,78	10.586,43	9.047,35	18.510,68	8.827,36	9.683,32	1.123,10			1.759,07		
Ekipo informatikoak	5.114,01	4.287,06	826,95	5.114,01	3.919,52	1.194,49				367,54		
Instalazio teknikoak												
Altzariak	160.751,52	160.140,36	611,16	160.751,52	159.293,10	1.458,42				847,26		
Artelanak												
Beste inbertsio batzuk	5.005,80	5.005,80		5.005,80	5.005,80							
Bestelako ekipak	2.418,20	2.213,95	204,25	2.418,20	2.006,80	411,40				207,15		
Makinak eta tresnak	387,80	387,80		387,80	387,80							
Guztira, orokorrean	844.589,03	747.773,42	96.815,61	797.243,72	722.163,27	75.080,45	47.345,31			25.610,15		

